

2019ko abenduaren 14a | XIII. urtea • 650. zbk.
0,50 euro

GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

ILLUNBE BUELTAKA JARTZERA

Jon URBE | FOKU

> 12





SINADURAK:

- 03 Gorka Elejabarrieta:
Bougainvilleko irakaspen batzuk
- 10 Saioa Aginako Lamarain:
Entzutearen balentria
- 11 Pello Otxandiano: Oasitik
gogoeta batzuk
- 22 Arantxa Urbe: Kaligrafiak
- 23 Amaia Nausia Pimoulier:
Heriotza
- 26 Unai Gaztelumendi
- 27 Antton Izagirre: Ezkertiarak
omen
- 27 Miren Azkarate Badiola:
Gabonen zirimola
- 31 Olatz Arregi Uriarte eta
Arantxa Otegi Usandizaga:
Alexa, «qué tiempo va a hacer
hoy»?



Indian ustezko lau bortxatzaile hil
izana, batzuek txalotua eta beste
batzuek salatua 04

Islama Balkanetan 06

Gipuzkoako Bertsolari
Txapelketako finalista guztiekin
solasean 12

Arbasoek landutako baserritar
jantziak zaintzeko beharra 24

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Bougainvilleko irakaspen batzuk

Bougainvillek independentzia erreferenduma egin du azaroaren 23tik abenduaren 7ra bitartean. Bertie Ahern, irlandar lehen ministro ohia eta Aieteko Nazioarteko Konferentziako deklarazioaren irakurlea, Bougainvilleko komisio elektoraleko lehendakari izendatu zuten eta berak eman ditu erreferendumaren parte-hartze datuak eta emaitzak. Galdera eta erantzunak argiak ziren. «Ados zaude Bougainvillek eskuratu dezan: 1- Autonomia gehiago. 2- Independentzia». %87ko parte-hartzea egon da eta %97,7k independentziaren alde bozkatu du. Emaiza oso argia, duda izpirik uzten ez duten horietakoa. Kontrakoa iruditzen arren, hau ez da bidearen amaiera, baina independentzia bidean aurrerapauso garrantzitsua da dudarik gabe. Erreferenduma ez da loteslea, Papua Ginea Berria ez dago emaitza betetzera behartua eta ondorioz Bougainvillek ez du independentzia automatikoki eskuratuko. 2001ean sinaturiko bake akordioaren emaitza da erreferenduma. Bake akordio berberaren arabera, orain Papua Ginea Berriaren eta Bougainvilleko autonomiaren artean elkarriketa eta negoziazio prozesu bat ireki beharra dago eta akordioa lortuko balute Papua Ginea Berriko Parlamentuaren babesa beharko luke. Bide luzea geratzen da oraindik, baina horrelako emaitza argi eta sendo baten aurrean independentisten posizioa eta aukerak asko indartu dira.

Eta hor dago gatazken konponbide prozesuen koxka. 2001ean bake akordioa sinatu zutenean inork ez zekien hurrengo urteetan zer gertatuko zen, nork lortuko zuen aukera hobeto erabiltzea. Bake akordioak bi aldeetarako aukerak eta arriskuak zekartzan, horrelako prozesuetan beti gertatzen den bezala. Irabazle – irabazle eskemari jarraitzen dioten prozesuetan aldean arteko joko arau berriak adostea da helburu nagusia. Gerran lortu ez dituzun helburu politikoak ez dituzu negoziazio mahian irabaziko. Mahaian, aldiz, helburu horiek eskura-

tzeko bide demokratikoak adostu ditzakezu baina inork ezin dizkizu bide horiek emango dituzten emaitzak ziurtatu. Bougainvilleri 2001ean inork ez zion ziurtatu 2019an independentziaren aldeko bozen %97,7 eskuratuko zutenik. Inork ez baitzekien. Are gehiago, ziurrenik Papua Ginea Berriko mandatarien apustua independentistek indarra galtzea eta autonomiaren aldekoak indartzea izan zen. Ingalaterrak Irlandako bake prozesuak moderatuen posizioa indartuko zuela usate zuen bezala, inork ezin zien Sinn Feinekoei ziurtatu bake prozesuak beren posizioa indartuko zuenik. Aukerak eta arriskuak, baina partidak jarraitzen du eta partidak berriak ondo, hobeto edo txarrago jokatzekak ekarriko du mota bateko edo bestelako emaitza.

Horrelako borroka luzeetan bidea oso garrantzitsua da, ez baita berdina urteak, hamarkadak iraun behar duen borroka baldintza batzuetan edo besteetan egitea. Prozesu adostu, demokratiko eta, ondorioz, baketsuek bide hobea ziurtatzen dute, alde guztientzat. Eta Bougainvilleko ereduak ere hori erakusten digu. Bake akordioaren aurreko konfrontazio garaiak milaka eta milaka hildako eragin zituen, egoera oso gogorrak, bereziki Bougainvilleko biztanleentzat. 2001az geroztik borroka grinak jarraitu du baina oso bestelako baldintzetan. Begira dezagun Papua irla bere osotasunean eta erraz ulertuko dugu diodan hau. Ekialdean, Papua Ginea Berriaren eta Bougainvilleren arteko harremana, haietako bakoitzaren egoera, eta konpara dezagun mendebaldearekin, Indonesiaren pean jarraitzen duen Mendebaldeko Papuarekin, non giza eskubide urraketa masiboak burutzen ari diren Indonesiaren eskutik. Konfrontazio gordin eta egoera latza denentzat. Eta nori doakio hobeto, Papua Ginea Berriari Bougainvilleko erreferenduma adostuz edo Indonesiari bere ukazio politika aplikatuz Mendebaldeko Papuan? Nortzuen artean daude harreman hobeak? Eskoziaren eta Ingalaterraren artean edo Kataluniaren eta espainiar Estatuaren artean? •

Borroka luzeetan bidea oso garrantzitsua da, ez baita berdina baldintza batzuetan edo besteetan egitea

SEXU ERASOAK INDIAN

Ustezko lau bortxatzaile hil izana txalotu egin dute askok, beste batzuek ordea salatu

 JENDARTEA / Ainara Lertxundi

Pasa den azaroaren 27an 26 urteko neska bat bortxatu egin zuten lau gizonak. Motorra-
ren gurpilak zulatu zizkieten eta, neska gerturatzean, konpontzen lagunduko ziotela esan zioten. Gezurretan, urrutiko paraje batera eramán zuten, eta bertan bortxatu eta ito egin zuten. Ondoren, erre egin zuten. Gorpua hurrengo egunean aurkitu zuten Hyderabad hirian, eremu apartatu bateko zubi baten azpian.

Gertaera horrek haserre bizia piztu zuen Indian, non egunean ehun bat emakume bortxatzen dituzten. Delituak erregistratzen dituen nazio agentziaren arabera, 2017. urtean 33.658 emakume bortxatu zituzten Indian, horietatik 10.221 adin txikikoak ziren.

2012. urtean New Delhin bere bikotearekin zihoan unibertsitateko ikasle bat autobus baten barrualdean bortxatu eta torturatu egin zuten. Handik egun batzuetara hil egin zen Jyoti Singh gaztea. Albisteak oihartzun handia izan zuen bai Indian eta bai nazioarteko komunikabideetan. Orduan bortxaketak zigortzeko legedia gogortu bazuten ere, inpunitate handia dago oraindik ere eta emakumeen kontrako sexu erasoak errealtate gordina dira Indian.

Azaroaren 27an gertatutakoak errealtate hori berriro ma-
haigaineratu du bere gordintasunean. Eta sexu erasoei aurre egiteko muturreko neurriak eskatzen dituzten ahotsak ugaritu egin dira.

«Biktima hiltzea emakumeen eta neskatoen kontra dagoen biolentzia epidemiaren beste adibide bat da», plazara-

Indiako poliziak tiroz hil zituen ustez albaitari gazte bat bortxatu eta hil zuten lau gizonak, ihes egiten saiatu zirela argudiatuta. Bortxaketa honek eta poliziaren jarrerak eztabaida piztu du; askok ustezko bortxatzaileak hil izana txalotu dute. Tiro egin zuten poliziak besarkatu eta loreak oparitu zizkieten. Beste batzuek hori ez dela justizia egiteko bidea ohartarazi dute.



tu zuen Niki Kandirikirak, Equality Now erakundekoak.

«Sexu biolentzia pairatzen duten emakume zein neskatoek oztopo ugari gainditu behar dituzte, bortxaketa salatzeko eta kasua auzitegira irits dadin zailtasunak handiak dira. Bidea luzea eta zaila da. Emakumeak isilarazteko, mehatxuak eta erasoak pairatzen dituzte salaketarik egin ez dezaten eta salatzeraz ausartzen direnean, salaketa kentzeko. Zigor tasa benetan baxua da, tamalgarria da poliziaren pasibotasuna eta sexu biolentziaren biktima diren emakumeen bazterketa», gaineratu zuen Kandirikirak.

Pasa den igandean, poliziak albaitari gaztearen ustezko lau bortxatzaileak hil egin zituen. Astebete zeramaten atxilotuta. Neskaren gorpua erre omen zuten lekura eramán zituzten goizaldean, Hyderabadko eremu apartatu hartako zubi azpira. Poliziak esandakoaren arabera, atxilotuak ihes egiten saiatu ziren eta poliziei eraso egin zieten. Orduan tiroz hil egin zituzten laurak.

Berria ziztu bizian zabaldu zen eta jendetza gerturatu zen poliziak txalotu eta zoriontzeko. Eskerrak emanez besarkatu zituzten. Handik igarotzen ziren gidariak autoa gelditu eta lekuaren argazkiak ateratzen zituzten. Bortxatutako neska-
ren aitak poliziakideei bere eskerrik beroenak eman zizkien, bere alaba «zerutik lasai egongo» zela gaineratuz. Sare sozialetan polizien jarrera gorai-
patu zuten, horiek heroizat hartuz.

Gobernuz kanpoko erakundeek, ordea, Amnesty Internationalek adibidez, lau gizonen heriotza legez kanpoko exekuzioa izan zitekeela ohartarazi eta kezka adierazi zuten. Tiro-

keta horren nondik norakoak ikertzea eta argitzea exijitu zuten. Auzitegi Goreneko abokatu batek bere haserrea azaldu eta «odol hotzean egindako hilketa» zela salatu zuen.


Giza Eskubideen Batzorde Nazionaleko ordezkari bat gertakarien lekura joan zen. Heriotza horiek gizarteari «mezu negatiboa» igortzen diotela nabarmendu zuen. «Atxilotuta zeuden lau pertsonak errudunak baziren ere, epaimahai batek zigortu behar zituen legediaren arabera», helarazi zuen. Hyderabad hiriburua duen Telengana estatutuko Auzitegi Gorenak lau gorpua bere horretan uztea eta autopsia bidez grabatzea agindu zuen. Betiere Poliziaren bertsioaren arabera, atxilotuta zeuden bitartean neska bortxatu eta gorputza erre izana aitortu zuten.

“Express” egunkari indiarren arabera, gertakariak berri-tzearen ardura zuen polizia ofiziala 2008. urtean antzeko bi gertakaritan inplikaturik zegoen.

Hildakoen aita batek «semea odol hotzean hil izana» salatu zuen. «Zergatik zigortu dituzte prozesua bukatu baino lehen?», galdetu zuen.

Ia aldi berean, epaitegira deklaratzera zihoan 23 urteko emakume bati su eman zion gizon talde batek. Iazko abenduaren 12an bortxatu egin zuten eta, pasa den astean, epaitegira zihoala, Unnao-ko tren geltokian, Uttar Pradesh estatuan, India iparraldean, gizon- ezko talde batek, tartean us- tezko bortxatzailea zela, su eman zion. Ospitalera eraman zuten oso larriki zaurituta, erredurak baitzituen gorputzeko %95ean. Handik egun batzuetara hil egin zen bihotzekoak emanda.

Aurreko orrialdean, Indiako Kongresu Nazionala alderdi politikoaren ordezkariak bortxatzaile bat irudikatzen duen panpina erretzen, bortxaketaren egindako manifestazio batean. Goian, 27 urteko alabaitariaren gorpua aurkitu zuten lekua; pertsona ugari gerturatu ziren poliziak ustezko lau bortxatzaileak tiroz hil zituela jakitean.
Sam PANTHAKY
Noa SEELAM | AFP



Hil aurretik ospitalean egin zuen deklarazioaren arabera, kolpekatu eta sastakatu egin zuten eta, ondoren, su eman zioten. Hala ere, oinez kilometro bat egitea lortu zuen poliziari deitzea lortu zuen arte. Erasotzaileen artean duela urtebete bortxatu zuen gizona identifikatu zuen.

Uttar Pradesh emakumeentzat estaturik arriskutsuenetarikoa da Indian. 2017an, 4.200 bortxaketa salatu ziren.

Egunotan, mobilizazio eta protesta ugari egin dira In-

dian. “Galdetu, entzun eta errespetatu”, “Ezekotik zer ez duzu ulertu?” edo “Ez dago sexurik baiezkorik gabe” lelopean manifestazioa egin zuten, esaterako, New Delhin. Ikerketa «azkarrak eta zientifikoak» aldarrikatu zituzten, baita epaiketa «azkarrak eta bidezkoak» ere akusatuentzat. Kalkutan eta Hyderabaden ere mobilizazioak egin zituzten emakumeek.

Baina, muturreko neurriak eskatu dituzten ahotsak ere entzun dira egunotan. Re-

vanth Reddy legebiltzarkideak –Indiako Kongresu Nazionala alderdiaren talde politikoaren ordezkaria Telenganako estatuan– bortxatzaileak «ahalik eta azkarren urkatzea» eskatu zuen Twitter sare sozialean.

«Horrelako pertsonak publikoki seinatu behar ditugu eta lintxatuak izatea besterik ez dute merezi», adierazi zuen Samajwadi partiduko legebiltzarkide eta aktorea den Jaya Bachchanek. Bollywoodeko Amitabh Bachchan aktore ospetsuaren emaztea da.

Ildo berean mintzatu zen Vijila Sathyanath legebiltzarkide (AIADMK alderdikoa). Ustezko bortxatzaileak hil aurretik egindako adierazpenetan, «abenduaren 31 baino lehen krimen hori egin zutenak urkatzea» eskatu zuen.

Heriotza zigorra azkenekoz 2015. urtean aplikatu zuten, Mumbayn 1993an egon ziren atentatuekin lotuta.

Egunotan, mobilizazio eta protesta ugari egin dira Indian «Galdetu, entzun eta errespetatu», «Ezekotik zer ez duzu ulertu?» edo «Ez dago sexurik baiezkorik gabe» lelopean

Muturreko neurriak eskatu dituzten ahotsak ere entzun dira egunotan. Revanth Reddy legebiltzarkideak bortxatzaileak «ahalik eta azkarren urkatzea» eskatu du Twitterren

ISLAMA BALKANETAN

Bektasen jarraitzaileen adar heterodoxoak beldur dio wahabismoaren hazkundeari

📁 NAZIOARTEA / Miguel Fernandez Ibañez

Hodei mehe-
ek Topolcani
herria fere-
katzeko tar-
tea uzten
diete eguzki
izpiei abendu hasiera honetan. Ipar Mazedonia zeharkatzen duen autobideak bitan zatitzen du Prilep eskualdeko herria. Autobus publikoek duten prezio bera ordaindu dugu Bitolatik Toplocanira ekarri gaituen legez kanpoko taxi kolektiboa hartzeko. Orain, ordea, auto-stop egin beste aukerarik ez dugu Kanatlarci herrixkara iristeko azken 7 kilometroak egiteko.

Hiru minutu baino ez dira igaro eta bikote batek bere autoa gelditu du. Inguruotara Bektasen jarraitzaileen bila etorri garela pentsatu dute. Kanatlarcin bizi diren kristau familia bakanetariko bateko

kideak dira, eta, beso zabalik hartu gaituzte, Balkanetako jendeak oraindik ere mantentzen duen abegi ona erakutsiz. Herrira heltzean, gainera, Haci Bektas Veliren jarraitzaile izandako Tekkean Dickmen *baba* edo gidariaren hilobia non dagoen galdezka hasi dira

herritarren artean gu laguntzeko asmoz.

1.000 biztanle dituen Knatalarci herrixkan, familia mazedoniar bakan batzuk eta sunita turkoen talde txiki bat kenduta, herritar ia denak Bektasen jarraitzaile turkoak dira. Islamaren korronte sufi ho-

rrek gurtza monoteistak eta paganoak nahasten ditu eta Ali ohoratzen du, hau da, islamaren laugarren kalifa, gaur egun xiismoaren ikur dena.

Esan bezala, Haci Bektas Veliren jarraitzaileak dira herri-
tar gehienak, Anatolian XII. mendean bere ideiak barreiatu zituen eremutarrarenak. Ideiok askotariko eraginak ziztuzten: mistizismo islamiarra, kristautasuna, zoroastrismoa, manikeismoa... Horrexegatik, hain zuzen, dira heterodoxoak Bektasen jarraitzaileak. Erdialdeko Asiako Jorasan eta Bujara eskualdeetatik Anatoliara iritsi ziren ihesi eta, asko bertan geratu ziren arren, batzuk Balkanetaraino iritsi ziren karabanetan. Horren adibide dira Sari Saltik dervixe ezagunak gidatu zituen jatorri turkomano familia.

Turkiako alevien erritual bat, Kahramanmaras probintzian.
M.F.I.

Jenizaroen patua

Otomandar Inperioak mistikoon ideiak bultzatu zituen Balkanetan, kristauen konbertsioa samurtzea helburu. Horretarako, Bektasen jarraitzaileak ziren jenizaroak erabili zituen, hau da, sultanaren pretoriar guardia osatzen zuten oinezko soldaduak. Hori horrela, Bektasen jarraitzaileen eta jenizaroen patuek bat egin zuten betiko.

1826. urtean, "Ate Gorena"-ren aurka hamarkadatan hainbat matxinada bultzatu ondoren, jenizaroak indargabetu egin zituzten otomandarrek. Bide batez, suniten ortodoxia errespetatzen zuten naqshbandien ordenako sufiekin ordezkatu zituzten.

Mustapha Kemal Atatürk Turkia berriaren fundatzaileak berak jenizaroen oroimena goraipatzen zuen arren, Turkiako Errepublikak erlijio or-



dena guztiak legez kanpo utzi zituen 1925ean. Bost urteren buruan, Bektasen jarraitzaileek Albaniako Tirana hiriburura eraman zuten euren egoitza nagusia. Bertan bizi da egun Baba Mondi agintari gorena ere. Baina ez da Bektasen jarraitzaileen agintari bakarra eta batzuek Turkiari begiratzeko diote oraindik, batez ere Haydar Ercan Dede agintari gorenari. Kanatlarci herrikoak, adibidez, horien artean daude.

Zeynel Abidin *baba* da egun Ipar Mazedoniako bihotzean bizi den komunitate turko txiki-kiko agintaria. Gogo onez kontatu dizkigu Dikmen *baba* handiaren mirariak, hau da, Kanatlarci herrixkako zaindariarenak. Dikmen aipatzean begiak pizten bazaizkio ere, oreka mantentzen maisua da ohi bezala bizarra ondo moztuta duen agintari erlijiosoa.

Ezkontza batera zulatuta zegoen zahatoan ura isuri gabe eramateko kapaz izan omen zen Dikmen. Behin hil ostean, zerutik jaitsi eta lur lehorrean zuhaitzak haztea lortu omen zuen. Are gehiago, behatza lurrean sartu besterik ez omen zuen behar ura atera zedin.

Partisanoak, naziak...

Ondoren izan ziren inguruotan beste eremutar batzuk ere, baina ez Dikmen bezain ahaltsuak. Pentsa, Bigarren Mundu Gerraino iritsi omen zen herritarrek babesteko zuen gaitasuna. «Partisanoek gu soldadu ez eramatea lortu zuen eta nazien kanoikadetatik babestu gintuen. Berak babesten gaitu, harresi bat balitz moduan. Inoiz ez dugu minik pairatzen», azaldu du irmo Zeynelek.

Azkenaldian, jarraitu du Zeynelek, «mirari gutxiago» gertatzen omen dira munduan.



Bektasen jarraitzaileen «baba» edo gidarien hilobiak, argazki eta guzti. M.F.I.

Eta mirariak garrantzitsuak dira Bektasen jarraitzaileentzat: «Ali eta islamaren lehen kalifak bereizten dituen mirariak dira. Alak gure agintariei emandako ahalmena dira mirariak. Mahomaren heriotzaren ondoren, bere lekukoa nork hartuko zuen zen galdera, eta, Aliri, Mahomaren lekuan esertzeko aukera lapurtu zioten. Ali gaztea zen, 33 urte baino ez zituen. Abu Bakr, Omar eta Uthmanek 50 urte-tik gora zituzten, baina ez ziren gai mirariak egiteko. Hor hasi zen musulmanon arteko liskarra: nolatan har zezaketen Mahomaren lekukoa beharrezko dohainik eduki gabe?».

Judaismoaren, kristautasunaren eta islamaren profetek

dohainak zituzten erlijio-jarraitzaileen ustez. «David gaitzen burdina eskuekin moldatzeko, Salomonek haizea kontrolatzen zuen, Moisesen makila suge bihurtu zen, Jesus berpiztu egin zen. Mahomaren kasuan, Korana idatzi zuen –musulman batentzat miraririk handiena–, eta, horrez gain, Kuraixen Armada ahaltsuari gailendu zitzaion Badreko guduan».

Aleviak

«Profeten mirariok, Alaren graziak emanak, ezinbestekoak izan ziren beste erlijio batzuetako jarraitzaileak konbentzitzeko», jarraitu du Zeynelek. «Ali bera ere, profeten antzera, zanpatuen alde egon zen eta bere mirariei eskerislama fedetzat hartu zuten hainbat komunitatek. Alirengatik egin zuten eta hortik dator *alevi* hitza, 'Aliren jarraitzaileak', nabarmendu du adituak, xiismoaren hamabi imamak irudikatzen dituen harri landua harro erakusten digun bitartean.

Aleviak ez dira denak Bektasen jarraitzaileak, eragin berbe-


rak badituzte ere. Aleviek *kizilbak* ("buru gorriak") tribuetan dute jatorria, hau da, Safaviden dinastiako Ismail xahren alde egin zuten Anatoliako ekialdeko tribuak. 1514an, Caldiraneko guduan, Safaviden dinastiakoak galtzaile irten ziren eta, errepresiotik ihesi, Balkanetara alde egin zuten.

Bektasen jarraitzaileek, ordea, Otomandar Inperioaren babesa izan zuten luzaroan islamaren interpretazio heterodoxoa hedatzeko. Horregatik hain zuzen, euren diskurtsoa askoz zehatzagoa da egun. Aleviek, ordea, ez dute oso garbi ez euren jatorria ez euren bilakaera. Erlijioa ala sinesmen hutsa da beraiena? Attaturk errespetatu behar dute? Zer puntutaraino Alirenganako debozioa ez ote da sunitei dieten beldurraren eragina?

Irene Melikof adituaren ustez, «sinesmen berdinak dituzte aleviek eta Bektasen jarraitzaileek eta guztiek gurtzen dute Hacı Bektas. Bektasen jarraitzaileek egonkortzea lortu zuten, baina, aldiz, herrixketan bizi ziren aleviek ez zuten behar beste antolatzea lortu. Ondorioz, bi taldetan banatu

Bektasen jarraitzaileen sinesmenak iturri askotatik elikatu dira: mistizismo islamiarra, kristautasuna, zoroastrismoa, manikeismoa. Islamaren korrante heterodoxoa da, beraz

Bektasen jarraitzaileak ihesi heldu ziren Balkanetara. Aldiz, Otomandar Inperioak babestu egin zituen Balkanetako kristauen konbertsioa bultzatzea helburu hartuta



ziren eta bakoitzak eragin etniko ezberdinak izan ditu, Bektasen jarraitzaileek Balkanetakoak. eta, aleviek, berriz, irandarrenak, kurduenak...».

Bien arteko loturak ez daude garbi, ezta Bektasen jarraitzaileek jenizaroekin zituztenak. Anatolian alevien berpizkunde kulturala ematen ari den honetan, Balkanetakoek bereari eusten diote. «Lehenik eta behin Bektasen jarraitzailea naiz, eta, gero, alevia», nabarmendu du Zeynelek.

Hierarkia zorrotza

Bektasen jarraitzaileak agintariekiko oso leialak dira eta hierarkia oso zorrotza dute. Behe-tik gora, lehenik eta behin *ashik*-ak daude, hau da, erlijio ordenan interesa dutenak baina oraindik erritualdia bete ez dutenak. *Muhip*-ak ikastunak dira eta urteak behar dituzte dervixe bihurtzeko. *Dervixe* hitzak farsieraz “ateak bilatzen eta irekitzen dituen” esan nahi du, eta dervixek Alaren ahalik eta gertuen bizitzeko

hautua egiten dute. Ezkontzeko zein zelibatoa jarraitzeko aukera dute. Azken “sakrifizio” hori, baina, oso estimatua da duela mende batzuk ordena goitik behera antolatu zuen Balim Sultanek ezarri zuenetik. Jarraian, *baba* edo gidari espiritualak daude. Kanatlarcin hiru dira. Komunitateak hautatu eta *dede* edo probintziako agintariak oniritzia ematen die. Guztien gaineratik, *dedebada* dago, *dede* desberdinek hautatzen dutena.

Islamaren korronte ortodoxoekin alderatuta, Bektasen jarraitzaileek ez diete jaramonik egiten Korana interpreta-

Kanatlarci herria Prilepeko eskualdean dago, Ipar Mazedonian.
M.F.I.

«Ate Gorenaren» aurka altxatzeagatik sultanaren pretoriar guardia osatzen zuten jenizaroek jasandako patu bera pairatu zuten Bektasen jarraitzaileek, sinesmen berak baitzituzten

Atatturkek Turkiako Errepublika berria eratu zuenean, erlijio ordena denak debekatu zituen. Ondorioz, Bektatsen jarraitzaileek Albaniara eramane behar izan zuten beren egoitza nagusia

tzean ezarri ohi diren hainbat debekuri. Adibidez, txerria jan dezakete, ez ordea untxia. Hala ere, arraina dute gustukoen, urak purifikatuta omen dagoen jakia baita.

Emakumea

Cemevi izeneko egoitzatan egiten dituzte erritualak, ez baitira meskitetara joaten eta kantuan eta dantzari egiten dute, poeten olerkariak irakurtzeaz gain. Gainera, gai erlijioso eta sozialak jorratzen dituzten *muhabet* topaketetan alkohola edaten dute. Emakumeek erritualetan parte hartzen dute eta *muhip* eta dervixe bihurtzeko. Hori bai, hor dute sabaia eta hierarkian gorako egiterik ez dute.

Ortodoxiarekin alderatuta agertzen duten malgutasuna horren eraginez, jihadistien eta muturreko islamisten jomuga daude gaur egun Bektasen jarraitzaileak, xaria errespetatzen ez dutela egotzita heretikotzat dituztelako. Deabruari otoi egiten omen dietelako Estatu Islamikoaren jazarpena

pairatu duten yezidiak bezala, Bektasen jarraitzaileak islam ortodoxoenaren aurka altxatu dira, wahabismoarekin eta salafismoarekin lotuta dauden korronteen aurka hain zuzen.

Ildo horretan, azken urteotan Mazedonian tirabirak sortu dituzten zenbait auzi izan dira. Lehen, Skopjeko Gobernuak ez duela onartu Bektasen jarraitzaileena berezko erlijio gisa. Hala, sunitak nagusi diren eta atzerritik kontrolatutako Mazedoniako Komunitate Islamikoren agindupean utzi ditu. Auzia Giza Eskubideen Europako Auzitegira eramane zuten eta honek Bektasen jarraitzaileen alde egin zuen. Gobernuak isilik jarraitzen du, baina, Europar Batasunerantz bidean, azkenean ebazpena onartu beharko duela uste da. Horrek, Zeynelen hitzetan, Albanian duten estatusa lortzea bermatuko lieke, baita ezbaian dauden lurra bereganatzea eta, batez ere, zenbat diren jakitea. Izan ere, egun Mazedonian %34 diren musulmanen baitan ez da bereizketarik egiten suniten eta xiiten artean. Zenbat diren jakiteak, aurrekontuetatik dirua lortzeko bidea irekiko lieke Bektasen jarraitzaileei.

Erdoganen itzala

Bigarren auzia aspaldikoa da, 2002ko abuztuko, baina ez da ahaztu. Muturreko suniten talde bat Ipar Mazedoniako Bektasen jarraitzaileen artean nagusi den arabati ordenaren *tekke*a batean (bilkura eta otoi-tzerako egoitza nagusia) sartu zen armak eskuan, meskita bihurtu zedin exijituz. 17 urte igaro dira eta, ekintzaren arduradunak, Erdogan jarraitzailea eta segurtasun arloko langilea den turkiarrak, bertan jarraitzen du. Abdul Mutalip

Korana interpretatzean ezarri ohi diren zenbait debekuri ez diete kasu egiten Bektasen jarraitzaileek eta ez dira meskitetara joaten. Emakumeak dervixe izatera ere irits daitezke

Islam ortodoxoak heretikotzat jotzen ditu Bektasen jarraitzaileak. Eta gero eta indartsua da, Saudi Arabiaren diruari eta Erdogan presidente turkiarraren babes politikoari esker

Bekiri derbixeak onartu digu ez duela lasai errezatzen salafiston artean. Bektasen jarraitzaileen abegi onak gauzek okerrera ez egitea ahalbidetzen dute, eta sunitek ondo dakite hori baliatzen.

Bestalde, gauzak are gehiago korapilatzeke, Kicevo herrian arabatien taldea bitan banatu da. Dervixeez argi dute sunitak bazterrak nahasten ari direla. «Aita *baba* zuen arren, zatiketaren bultzatzailea diru truk Saudi Arabiak inposatutako wahabismoren besoetan jauzi da».

Kanatlarci bueltatuz, lurra bustita dago gaur. Atzoko eguna euritsua izan zen. Hala ere, gorri-hori kolorea nagusi da, eskualdean tabakoa lantzen delako, Mazedonian oso preziatua. Nonahi ikusten dira hostoak, teilatuetatik zintzilik. Etxe sendoetan Turkiako ikur asko ikusten dira. Herriaren erdian denda bat baino ez dago. Dikmen *baba*-ren hilobia ikustera urtero erromes asko bertaratzen dira. Kanatlarcin beste eremutar bat ere badago lurperatuta, Kurd Dede.

Meskita bakarra

Kurd Dederen hilerritik gertu dago herriko meskita bakarra, 2018an eraikia. Refat imama duela lau urte iritsi zen Kanatlarci, Adiyaman Turkiako eskualdetik. Bere sorterrian aleviaz bizi dira, baina bera sunita da. Ez zuen harrera berorik izan eta meskita eraiki arte madrasa batean egiten zuen otoi. «Hemen ere %70 aleviaz dira, baina urtetik urtera jende gehiago dator meskitara», dio harro.

Adineko jendea meskitara joaten ez dela onartu du Refatek, baina «gero eta gazte gehiago» gerturatzen direla gaineratu du. Suniten ortodoxiarekin bat

ez datozen errelatoekin hazi dira gazteok, «eta ezberdintasunak ditugu, baina Ala, gure liburua eta erlijioa berak dira guztiontzat». Ezberdintasunak ere aipatu ditu: «Iragana beste era batera irakurtzen dute. Korana ere modu alegorikoan irakurtzen dute. Baina dei egiten diet Bektasen jarraitzaileei eta oro har alevi denei Kerbalan gertatu zena [Hussein imam xiita erail zuten bertako guduan, urtero Axurako erromesaldian gogoratzen dena] botere borroka izan zela uler dezaten, ez zela suniten erantzukizuna izan. Bertan gertatu zena guztiontzat izan zen atsekabea».

Refatekislama errespetuz erakusten omen du bere sinismenak gutxiengoan dauden herrian. «Ez dugu inor behartzen eta inork ez gaitu behartzen. Hemen kristauak ere bizi dira eta ez noa euren atzetikislama bere egin dezaten».

Bektasen jarraitzaileek imama intentzio onekoa delakoan daude eta errespetatu egiten dute, adiskidetasun mezuak ematen dituelako. Ez da bera gertatzen Recep Tayip Erdoganekin; agintari turkiarraren beldur dira, batez ere Abdulhamid II.a sultan otomandarra bezalako agintarien oinordeko aurkezten duelako bere burua.

Beldurra, bizi-bizi

Dikmen *baba*-k hegan zeharkatu omen zuen mendi lerroari begira dago Zeyneli. Ez dago lasai. «Wahabiei beldur diegu, nola ez ba, oso indartsuak di-

ra». Ez da ez harritzekoa kezka hori, Anatolian bi mendez errepresio gogorra pairatu baitzuten Bektasen jarraitzaileek, Albanian Enver Hoxharen erregimen atea eta Jugoslavia ohian sozialismoaren mespretxua. Azkenean Balkanetan egonkortzea lortua zutela zirudienean, muturreko sunismoak eragiten dien beldurra uxatu nahian ari dira egun, beti egin duten bezala, maitasunaren eta errespetuaren bidea aldarrikatuz. Zeynelek hiru muxurekin irudikatzen du hautu hori: «Muxu bat Alarentzat, bestea Mahoma profetarentzat eta azkena Ali kalifarentzat».

Zeynel Abidin «baba», Kanatlarci herriko Dikmen zaindaria hegan zeharkatu omen zuen mendi lerroa adierazten. M.F.I.





Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Entzutearen balentria

Bere burua eta besteak errespetatzen ikasten duena, elkarbizitza oso-agoa, enpatikoagoa eta esanguratsuagoa izateko gai da. Besteak errespetatzen jakiteko gaitasuna tratutik hasten da, komunikaziotik, hori baita edozein harremanen oinarria. Hala ere, “ulertzeko entzun, ez erantzuteko”, behin baino gehiagotan entzun dugun esaldi hori, nahi baino gutxiago trebatzen dugu.

Zer esan nahi du entzuteak? Definizio bat, besteen bizitzan aldaketak eragiteko gaitasuna, bai eta bestearekiko konfiantza, hurbiltasuna, segurtasuna eta enpatia sortzea ere izan daiteke. Zenbat gauza, ezta? Entzuteak ahalegina eskatzen du, ez da lan erraza; horregatik, erabaki behar dugu noiz entzun nahi dugun, edo noiz entzun diezaiokegun besteari. Entzutea jaramon egitea baino askoz gehiago baita, arreta berezia eskatzen du, bai inguruan ditugun pertsonarekin, bai geure buruarekin ere. Une horretan, beste pertsonarekin, kanpoan zein barruan egoten jakitea esan nahi du, horrek dakarren inpaktu emozionala sentituz.

Gehienetan, norbait hitz egiten ari zaigunean, zerbait garrantzitsua kontatzen, bere emozioak eta beharrak transmititzen saiatzen ari denean, automatikoki gure zarata mentalari begira gaude, gure barrutik datorren diskurtsoari. Aurreiritziek mugatzen dute askotan entzutea, eta, beraz, komunikazioa. Zerbaiti buruz aldeztu aurretik pentsatutako ideia bat edukitzean, hermetiko bihurtzen gara gure ideien kontra doan ororekiko.

Entzute aktiboak ulermena eskatzen du, baina ez horregatik erantzuna. Entzuteak berak bultzatzen du besteak hitz egiten jarraitzea. Isiltasunak etengabeko ematen du, aldi berean, hitz egi-

ten jarraitzeko gonbita egin eta gure burua entzuten ere laguntzen digu. Gainera, isiltasuna lagungarria izan daiteke berritsuak ez diren eta hitza hartzeko abiada hartu behar duten pertsonentzat. Hitz egiten ari denak, entzuna sentituz gero, jarraitzeko gonbidapena jasotzen du, irekitzeko eta barruan daramana besteekin partekatzeko pizgarria. Entzuteak pazientzia ere eskatzen du, eta, horregatik, entzumenaren hobetzeko egin dezakegun lanaren barruan sartzen da.

Baina badira entzute aktiboa zailtzen duten oztopoak ere. Hona hemen horietako garrantzitsuenetarikoz batzuk: sinesmenak, bestearen mezua hautemateko modua baldintzatzen dutelako; itxaropenak, entzutean bestearengandik edo egoerarengandik espero dugunak bide batetik edo bestetik eramaten gaituelako; eta jarrera, askotan entzutea, aipatu dudana bezala, hori baino ez baita, entzutea, kontakizuna amaitzean ez du esku-hartzerik behar.

Aitzitik, hurbiltasuna behar du, espazio ia partekatua, bere istorioa kontatzen ari zaidan pertsona nola sentitzen den ulertzea eta harekin konektatzea, interesez eta pazientziarekin ehuntzen den konplizitatea eta sintonia.

Entzuteari garrantzi hori ematen diogunean, gaitasun bat baino askoz gehiago eskatzen dituela jabetzen gara, baita inguratzen gaituzten pertsonen aurrean eta bizitzaren aurrean oro har jarrera bat izaten amaitzen duela ere. Gertaeren aurrean presente egoteko modu bat da, ikusle hutsa izan gabe, barrutik azaleratzen den eta inguratzen gaituen edertasunaren parte izanik eta horretaz jabetuz.

Entzutea landu eta indartu daitekeen trebetasuna da; izan ere, beharrezkoa da, batez ere, besteekin benetako harremana izan nahi badugu. Nori ez zaio gustatzen arretaz eta interesez entzuna izatea? •

saioaaginako@gmail.com



Entzutea jaramon egitea baino gehiago da, arreta berezia eskatzen du.

Andoni CANELLADA | FOKU

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Oasitik gogoeta batzuk

Oasi batean nagoen sentsazioarekin –hau ote euskal oasia deritzoten hori?–, “Joxe Azurmendi. Euskal pentsamenduaren ur-jauzia” kongresuaren atsedendian ari naiz artikulua hau amaitzen. Besteak beste, pentsamendu soziala, gogoeta etikoak, kooperatibismoa, eta kultura, nazioa eta estatuarekin lotutako gaiak izan dira mahai gainean. Ikasteko gogoz etorri naiz eta, batez ere, arnasberrituta bueltatzen naiz etxera. Pozgarria da garai berriotan Azurmendiren pentsamendua erreferentzia izatea jende askorentzat.

Eztabaida publikoaren mailak kezkatzen nau aspaldion, politikagintza inarosten duen zinismoak eta moralkeriak. Sarek EHUko Gasteizko campusean asteen antolatu hitzaldia azken adibide. Ez omen etikoa Jose Ramon Lopez de Abetxukok, zeinak preso eman dituen 31 urteetatik azken hamarrak gaixotasun larri batekin pasa dituen, preso gaixoen egoerari buruzko hitzaldi bat ematea. Zentzu askotan da larria inkisizioaren garaien antz handiegia duen giro hau –Vocentok “ETA pisa la universidad” lerroburua atera du asteen–. Esango nuke euskal abertzaleok –bateko zein besteko, ezberdintasun askoren gainetik Euskal Herria buru-bihotzetan dugu– tentu handiz aztertu beharko genukeela errelatoaren bataila deitu den honetan, mozkin azkarren peskiz, zein puntutaraino ez ote garen Espainia ultrakatolikoaren dogma gaiztoenak geureratzen ari. Pentsatu nahi dut kongresuaren irekieran Joxe Azurmendi itsasargia dela aldarrikatu zuen Gipuzkoako ahal-dun nagusia ados egongo dela horrekin.

Noan beste leku batera: Fito Rodriguez eta Josu Txapategik liburua kaleratu dute Durangoko Azokaren bueltan, “Eskola publikoa” deiturikoa. Egungo eskola publikoak asetzen ez gaituela esan eta ikastolen mugimenduaren eta sare publikoaren arteko elkarlana galdegin dute eskola publiko burujabe baten alde. Steilasek eskola publikoari eraso egin izana eta Auzitegi Nazionalarekin parekatu izana leporatu dio Fitori. Honek gaurko eskola publikoa Espainiako sistema konstituzionalaren baita-

koa –eta beraz, menpekoa– dela baino esan ez duenean, eta publikoa litzatekeen euskal eskola berri baten alde baino egin ez duenean; eta inolaz ere ez duenean auzitan jarri sare publikoko eskoletan egiten den herrigintza lana. Hezkuntza sistemaren kolapsoaren atarian gaude-larik, ez ote gara gai diagnostiko komun bat egin eta helburu partekatuen alde indarrak batzeko?

“Pedagogia independentista” kontzeptua modan jarri da independentismo militantean. Ez dela behar beste egiten, konfrontazioa eskatzen duela eta borroka molde-en eztabaida jarri behar dela erdigunean. Baina, ze pedagogia independentista egin behar dugu herri-eraikuntzan oinarritzekoak diren gaien inguruan –hezkuntza kasu honetan– soseguz eztabaidatu eta gutxieneko adostasun sozialak eraikitzeko gai ez bagara ezta ezkerreko independentista deklaratuak garenok ere? Duela urte batzuk elkarrizketa batean anekdota bat irakurri nion Joxeri euskaldunok gauzak pentsatu aurretik egiteko dugu joeraz: nora mugitu behar zuen galdetu aurre-

Nahikoa litzateke geure politikagintza Joxe Azurmendiren pentsamenduak ematen dizkigun zimenduen gainean eraikitzen hasiko bagina gaurtik hasita

tik harritzarra bizkar gainean hartu zuen zegamarrarena. Joxeren belaunaldiak egin zuen sakontasunez ez bada ere, hartu al dugu patxadarik euskal egitasmoa krisi-aro honetan nola eta nondik bideratu pentsatzeko?

Joseba Sarrionandiak itxi zuen kongresua. Ostiralean izan zen hori, beraz artikulua hau idazterako ezin jakin zer esan zuen. Baina horrelako zerbait esan ahalko luke-elakoan nago: lapur banden etika eta politika gehiegi eta herrigintza gutxiegi. Xabier Barandiaranek abertzaleok lankidetzaren paradigma partekatu bat eraiki behar dugula defendatu zuen bigarren egunean. Nahikoa litzateke geure politikagintza Joxe Azurmendiren pentsamenduak ematen dizkigun zimenduen gainean eraikitzen hasiko bagina gaurtik hasita. •

ILLUNBE BUELTAKA JARTZERA

Oparoa belaunalditan, parekidea zenbakitan, puntaduna ikuskeratan

TESTUAK / Amagoia Mujika Telleria

ARGAZKIAK / Jon Urbe | FOKU

Gaur jokatu da Donostia Arenan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala. Illunbekoa tontorra izango da, baina badira hiru hilabete txapelketa abiatu zela. Final-zortzirenetan 42 bertsolari abiatu ziren eta saioz saio joan

da inbutua estutzen. Zortzi aulkirentzat bakarrik dago tokia Illunbeko oholtzan eta azkenerako zortzikote interesgarria; beteranoak, berriak, galtzeko gutxi dutenak, irabazteko asko... zortzi sinadura propio.

Gipuzkoako finala. Batzuentzat helburu, besteentzat ezusteko gozo. Denentzat, plaza izugarria, sei mila lagunetik gorako magal borobila. Zortzi bertsolari arituko dira ohol-tza gainekoa josten, lau gizon eta lau emakume; bost aurretik finalista izandakoak, hiru finalista berriak. Bi zati izango ditu finalak. Lehenengoan, bertsolari bakoitzak 15 bertso puntuagarri abestu beharko ditu: binaka zortziko handian; binaka zortziko txikian; bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian; binaka hamarreko txikian, eta, bakarka, gaia emanda, nahi den doinuaren eta neurrian.

Lehen fase horretan puntuazio altuena lortzen duten bi bertsolariek pausoa aurrera eman eta buruz burukoa jokatu dute. Beste hamar bertso puntuagarri bakoitzak: binaka seiko motzean, binaka zortziko txikian puntutan eta kartzelako lana.

Saio guztiko puntuazioak baita, lehen atalekoak eta bigarrenengoak, erabakiko da txapelduna. Xabier Gaztelumendik jantziko dio txapela txapeldunari, Gipuzkoako Bertsozale Elkartean urte askoan isileko lana egin duen añorgarra bera. Dena prest dago. Bertsozalea aulkian eseriko da eta baimena emango die bertsolariei Illunbe bueltaka jarri eta nahi duten tokira eraman dezaten.

XABIER GAZTELUMENDI LOPETEGI

«Bertigoia ematen dit, baina gailentzen den emozioa esker ona da, elkarteari eta kide guztiei»

Xabier Gaztelumendik (Añorga, 1961) jantziko dio txapela txapeldunari. Bertsozalea betidanik, Usurbilgo eta Orioko bertso eskolen jiran ibilia, Gipuzkoako Bertsozale Elkartea barrutik ondo ezagutzen du. 2002tik elkartean «inurri lan nekaezinean» aritua, lehen zortzi urteetan diruzain eta hurrengo zortzi urteetan idazkari. Bitarte horretan Zuzendaritza Batzordeko kide izan da eta eguneroko lanak eta kontu operatiboak kudeatzen aritu da Administrazio Sailekoekin. Gipuzkoako Bertsozale Elkartek isileko lan hori guztia eskertu nahi izan dio eta txapela janzteko lana eman, berak «ohoretzat» hartu duena. Ez omen da plazagizona, baina pozik beteko du emandako enkargua Illunbeko plaza handian.

Nola zaude?

Hasieran susto handia hartu nuen, inoiz ez duzulako espero horrelako gauza bat zuri egokituko zaizunik. Pixkanaka beste emozio batzuk gailentzen dira, batez ere esker ona. Joxe Mari Altuna izan zen nire aurretik diruzaina elkartean. 2002an pasa zidan erreleboa eta gogoratzen naiz nola esan zidan, «Xabier, nik ez dakit elkarteari zerbait eman diodan, baina elkarteak niri zenbat eman didan!». Nik ere nire kargua utzi nuenean 2008an nire egin nituen hitz horiek. Eta orain, txapel emaille izatearen ohorea eskaini



didatenean, esker on hori neurri gabekoa da.

Bertsolaritzaren ekosistematik kanpo ez dakit ulertzen ote den nola hor barruan denak zerbaiten parte sentitzen zareten.

Horrela da, bai. Egia da gaur egungo gizartean elkartearen balio batzuk ez direla ondo ulertzen, adibidez, borondatezko lana. Gaur egun borondatezko lana ez dago oso kotizatua, bakoitza gure eskolean bizi gara eta lanetik kanpoko denbora norbere buruari eskaintzea da ohikoena. Elkartea, besteak beste, borondatezko lanari esker bizi da; bestela ez litzateke ez txapelketarik ez sustapen lanik ez beste gauza askorik egongo.

Ekosistema hori osasuntsu dago. Zein da horren gakoa?

Elkarteak asmatu du belaunaldi berrietara iristen, transmititzen, eta gizartearengana ere iritsi egin da. Hala ere, ez dago formula magikorik eta, bertsoa inprobisatzen den bezala, elkartegintza ere neurri batean inprobisatu egin da. Elkartea eta bere funtzionamendua, neurri batean, oso esperimentalak dira; segurutik, baina esperimentatzen. Adibideak asko dira; lehendakari bat izan beharrean taldean izatea, funtzionatzen zuten hainbat gauzari buelta ematea –Euskal Herriko

«Urduritasun handia ematen du txapelketa guraso bezala bizitzeak. Kasu honetan, urduritasuna bikoitza izango da, txapel-emaille izango naizelako»

finala Belodromotik BECera eramatea, Bertso Eguna aldatzea—... Esperimentatzea gustatzen zaio eta asmatu egiten du. Elkartea konfort eremutik atera egiten da, etengabeko hausnarketaren bitartez, hori bere ezaugarri bat da.

Bertsolaritza bera ariketa kolektiboa da. Txapelketako oholztan, esaterako, lehiakideek elkarrekin josten dute saioa, ez elkarren kontra.

Zalantzarik gabe. Bertso saioa elkarrekin eraiki behar da, bestela ez du funtzionatuko. Eta elkartegintzan, berdin. Talde bat gera, talde bat egiten asmatu behar dugu eta horretan asmatzen dugun neurrian egingo dugu aurrera.

Bertsozalea zara. Bertsolaria?


Bertsozalea banaiz, baina ez naiz plazagizona. Mikroek eta oholtzek kalanbrea ematen didate eta ez nauzu sekula ikusiko plazan. Baina bertso eskolan urte asko eman ditut, Usurbilen lehendabizi eta Orion gero. Hor oso pozik ibili izan naiz, lagunartean hala moduzko bertsoak botaz, aitzakia horrekin afaritxoak antolatuz... Duela lau bat urte utzi nuen bertso eskola.

Finalean, txapel emailea izateaz gain, finalista baten aita zara. Urduritasun doblea?

Ez da samurra. Emazteak esaten du gurasoen ofizioa ez dela inoiz bukatzen eta hori egia da. Etxeko bat oholztan kantuan ikustean deseroso eta urduri egoten naiz, batez ere txapelketa bezalako gune eta une batean, orekari ezin eutsi alanbrean, edozein momentutan eroriko den beldurrez. Urduritasun handia ematen du txapelketa guraso bezala bizitzeak. Kasu honetan, urduritasuna bikoitza izango da, txapel-emaile izango naizelako. Baina beste modu bateko emozio bat da; bertigoia daukazu, baina gailentzen den emozioa esker ona da, elkarteari eta elkarteko kide guztiei.

Bertsorik botako duzu?

Ez, ez. Esan dizut ez naizela plazagizona, eta, horrelako plaza batean, gutxiago.



Gerta daiteke semeari txapela janzea.

Matematikoki aukerak daude, zortzi aukeratik bat. Eta zortzi aukeratik zazpi daude semea txapeldun ez izateko. Garbi daukadan gauza bakarra da, irabazten duenak irabazten duela, txapelak buru

oso egokian bukatuko duela. Niretzako ohore handia izango da zortzietatik edozeini txapela janzea.

Final ederra. Parekidea gainera. Garrantzitsua da hori?

Garrantzia handia dauka. Garai batean pentsaezina zen horrelako final bat irudikatzea. Zortzikote ederra da egia esan.

Kolore askoko zortzikotea.

Bakoitzak oso bertsokera pertsonala dauka. Iruditzen zait duela hogeit hamar bertsolariak bata bestearen antzekoagoak zirela, edo garai hartan kanontzat jotzen zen hari hurbiltzen gehiago saiatzen zirela. Gaur egun, berriz, askoz ere proposamen pertsonalagoak egiten dituzte eta aniztasuna handiagoa da. Eta hori beti da aberasgarria. Bakoitzak bere sinadura propioa dauka.

Tira, zu bertsolaritzaren bidera batu zinen eta zure bi semeak ere, Beñat eta Unai, horretan dabilta.

Bai, horrela da. Guk etxean bide bat erakutsi genien, txikiak zirela etxean bertsoekin eta errimekin jolasean hasi ginen eta gustatu egin zitzaaien. Gero eta gehiago eskatzen zuten, bertso eskolan ere hasi ziren eta gaur arte.

Bertsoa eskola ona omen da, eta ez bakarrik bertsotarako.

Bai. Bertso mundua, bizitza eskola bat da beste ezer baino gehiago. Bertso eskoletan ibiltzen diren gaztetxoei, bertsolariei eta bertsozaleei bizitzaren berri erakusten die eta gizartean normalean horren zabalduak ez dauden balioak transmititzen dizkie; aldamenekoa entzuten jakitea, aldamenekoa errespetatzea, genero berdintasunarekiko sentsibiltatea... Horrelako gauzak bertso eskolan transmititzen dira eta horiek gizartearentzat aberasgarriak dira. Bestelako trebetasunak ere transmititzen dira; diskurtso bat antolatzeko gaitasuna, memoria lantzea, arrazoiketa, euskararen aberastasuna...

Illunben icebergaren punta ikusiko da.

Bai, zalantzarik gabe. Bertsozale Elkartean badago kolektibo bat soldatapean lan egiten duena eta beste kolektibo zabal bat borondatez aritzen dena. Txapelketan oholta gainean ikusten dena erakusleihoa da, baina hor behean dauden isileko horiei guztiei esker egiten da, beste gauza asko bezala.

ALAIA MARTIN ETXEBESTE

«Lehen beldurra nion irabazteari eta beldurra galtzeari. Orain beldur gutxiago diet bi gauzei»

Oiartzun, 1987. Denerako prest omen dago, galtzeko eta irabazteko. Eta ez omen dauka bere burua zentsuratzeko asmorik. Gipuzkoako 2011. urteko finalean hirugarren izan zen; 2015eko finalean, bigarren. Gorantz dator eta bere pausoa ondo markatuz.

Denerako prest omen zaude. Zer esan nahi du horrek?
Beldurra galdu dudala uste dut. Beldurra badaukat, baina neukanaren erdia daukadala uste dut. Balio eskalan, presio eskalan eta beldur eskalan birkokatu ditut nire bizitzan gauza asko eta zentzu horretan prest nagoela uste dut. Lehen beldurra nion irabazteari eta beldurra nion galtzeari. Orain beldur gutxiago diet bi gauzei eta zentzu horretan libreago sentitzen naiz.

Duela lau urteko finalak zein arrasto dauka zure buruan? Gerturatu ahala



«Ez diot hainbeste beldur zenbaitetan eskatzen den borobiltasun hori ez emateari; niri zalantzak interesatzen zaizkit bizitzan eta baita bertsotan ere. Beste posizio honetatik, ilusioz eta jakin-min handiz begiratzen diot finalari»

aurreko finala berpiztu egiten al da buruan?
Bai, oso oroitzapen polita daukat 2015eko finalarena. Egia esan, 2011koa ere oso polita gogoratzen dut, biak oso desberdinak izan ziren arren. 2015ekoa gustura begiratzen dut, ez dit arantzarik sortzen eta baita 2011koa ere, nahiz eta garbi ikusten ditudan hobetu daitezkeen gauzak. Baina gustuz begiratzen diet eta balio didate konturatzeko orain beste momentu batean nagoela eta beste begirada bat daukadala zenbait gairen aurrean. Orain lasaitasun askoz handiagoa daukat gai batzuen aurrean kokatzeko garaian; zalantza handiagoa beste batzuen aurrean, baina zalantza horiek interesgarri egiten zaizkit eta ez diot hainbeste beldur zalantza horiek sor dezaketen bertsokerari. Ez diot hainbeste beldur zenbaitetan eskatzen den borobiltasun hori ez emateari; niri zalantzak interesatzen zaizkit bizitzan eta baita bertsotan ere. Beste posizio honetatik, ilusioz eta jakin-min handiz begiratzen diot finalari.

Ez omen duzu zure burua zentsuratzeko asmorik.
Plazan asko gozatzen dut. Plazako bertsokera arriskatu xeagoa da txapelketakoa baino, karratuagoa eta kontrolatuagoa baita. Horren baitan zalantza batzuk sor daitezke, zenbaitetan ertzeokoagoa den umore bat, ertzeokoagoa den arrazoiketa bat edo hain borobila ez den bukaera bat zenbateraino kantatu edo ez, hori gero igarri egiten baita puntuazioan eta sentsazioetan. Zentzu horretan, nik intuizioei egingo diet jaramon, ahal baldin badut behintzat. Hori da helburua. Ez dut zentsuratu nahi eta plazan sentitzen dudana askatasuna sentitu nahi dut, zirikatzeke, galderak proposatzeko... Nire buruari freskotasun hori baimendu nahi diot.


Ez zara gauza errazen zalea.
Gauza errazak, azken batean, erabakitako gauzak dira. Guk normaltzat hartzen duguna eraikitako zerbait da. Bertso



ontzat hartzen duguna urteetan eraikitako kanon baten ondorio da. Niri errazagoa egiten zait kantatzen dudana moduan kantatzea, inertzia batzuk ezabatzeko lan bat egin dudalako. Niri interesatzen zaizkidan gauzak askotan ez dira dimentsio bakarrekoak. Ertzak, puntak, formak, ikustea, begiratzea eta entzutea gustatzen zait. Nik egin nahi dudana horrelakoa da; zentzumenei, emozioei, arrazoiari eta zalantzari lotuta dago. Gauza zailak gustatzen zaizkidala baino gehiago esango nuke ez diedala beldurrik itzalak dauzkaten gauzei, argi-itzalak nahi ditudala.

Hor asmatzean gailurra ukitzen da eta asmatzen ez denean, lurrera.
Bai, baina lurrera erortzea oso erlatiboa da. Bere asmo eta intentzio onenarekin borrokan ari den norbait erori ez da erortzen, agian ez da hainbeste igotzen, baina ez da erortzen. Begirada izan behar dugu daukagunean eta garenean baino, izan nahi dugunean, proiektatu nahi dugun horretan. Iparra gogoa dagoen toki horretan jarri behar dugu eta iristen saiatu. Eta bidean gertatu behar duena gertatuko da. Gailurra, azken finean, bidea da eta aukeratu dezakezun bakarra bide horretan edukiko duzun jarrera da.

Entzulea zirikatzea da helburua, aulkian deseroso sentitzea?
Nik ez dut inor deseroso sentiarazi nahi, baina ez dut inor deseroso ez sentitzeko pentsatzen dudanari uko egiteko beharrik izan nahi. Deserosotasuna, gatazka edo kontraesana bere horretan ez dira arazo, arazoa da horiek ukatzea, mina egiten digunari ez begiratzea, bizkarra ematea... Entzuleen artean jendea deseroso egotea aberasgarria da, nahiz eta ez dudana hori bilatzen zuzenean. Nik nire buruarekin eta ideiekin eroso sentitu nahi dut.



Azpeitia, 1982. Lehenengoz iritsi da Gipuzkoako finalera eta beti ateetan geratu izanaren mikatza gozatzeko modua izan du. Bertsolari handien leinu bateko kide, Lizaso abizena karga bihurtu izan zaiola aitortzen du. Bere bertsokerarekin finalera iritsi izana pozgarri eta gozagarri zaio.

Ze ondo Lizaso bat Illunben. Zuk abesten duzunean lizasotarren soka igartzen da atzetik. Jakitun zara?

Aspaldi asimilatu nuen, egiten nuena egiten nuela, beti Lizaso izango nintzela. «Ondo, baina aita hobia duk». «Ondo, baino aitona zuan ona». Askotan entzun ditudan gauzak dira.

Zer da, karga edo akuilua?

Karga gehiago. Beti konparaketan aritzea karga izan da niretzako. Baina aspaldi konturatu nintzen nire bidea egin behar nuela, betiko marmar hori hor egonda ere. Uste dut Illunbeko final honek ere balioko didala betiko marmar hori

«Ez naiz Lizaso bakarrik. Sebastianen semeak bertsotan ere egiten du eta bera iritsi da Illunbera. Nire ahots propioa erakusteko beharra daukat»



BEÑAT LIZASO ALBERDI

«Pisu handia kendu dut gainetik finalera iritsita; abizenarena eta beti atean geratu izanarena»

isilarazteko eta Beñat erakusteko. Ez naiz Lizaso bakarrik. Sebastianen semeak bertsotan ere egiten du eta bera iritsi da Illunbera. Nire ahots propioa erakusteko beharra daukat.

Nola irudikatzen duzu Illunbeko plaza?

Sekula ez naiz horrelako plaza batean aritu. Aurreko Tolosako finalaurrekoa izango da bertsotan aritu naizen toki handiena. Egia da jende gehiagoren aurrean hobeto moldatzen naizela; ehun lagun egon edo mila eta bostehun, ni hobeto mila eta bostehun dauden tokian. Itxaropen eta ilusio horrekin noa, baina, era berean, beldur pixka bat ematen dit oholtzara igo eta zer pasatuko den. Ez dut espero atzera botako nauenik, baina beldur pixka bat badut.

Tolosako finalaurrekoan, finalean zinela jakitean, txapelkunaren pare ospatu zenuen. Une ederra.

Ez nuen espero. Nik ez nuen txapelketan parte hartzeko asmorik, sentitzen nuen langa jota nengoela, egin nuela egin beharrekoa eta beste pausoak handiegiak zirela. Ezinezkotzat bezala jotzen nuen finalean egotea. Nire helburua, gainera, ez zen finalera iristea. Borroka egin nahi nuen eta itxura ona eman txapelketan, hori bai.

Korapilo bat askatu izanaren sentipena igarri genizun.

Egia esan, pisu handi bat kendu dut gainetik finalera iritsita. Batetik, abizenaren pisu hori, eta, bestetik, atean geratzearen pisua. Hor nagoela demostratzeko beharra neukan, egia esan.

Bi pisu zamatsu kendu dituzu eta plaza handietan hazi egiten zara. Zureak toki ona dirudi finala jokatzeko.

Nik ere horrela ikusten dut. Hasieran ikara pixka bat ematen zidan nire burua Illunben irudikatzeak. Baina egunak

aurrera joan ahala, asimilatzen ari naiz eta ilusioa piztu zait. Toki ona da nirea, ez daukat ezer galtzeko eta irabazteko dena. Txapela janztea ezinezkoa da, baina plazan erakutsi nahi dut badakidala bertsotan egiten. Horixe nahi dut. Bertsotan egin nahi dut, ez bertsotan jardun.

Aitak zer esan dizu?

Hitz gutxi, baina uste dut bera dagoela ni baino kontentuago. Bera ere kontziente da gainean daukadan pisuaz. Berak ere izan du bere aitaren pisua. Uste dut kontziente zela behar nuela final hau, erakusteko abizena ez dela dena, bertsotan ere badakidala. Azkenean lortu dut, gutxien espero zen garaian.

Finalari kolore propioa emateko moduan zara, zuretik. Plazak eskertzen du zure bertsokera.

Akordatzen naiz duela lau urteko txapelketan askok esaten zidatela nire estiloarekin oso zaila zela finalera iristea. Eta nik erantzuten nien, «ikusi Unai Agirre noraino ailegatu den!». Duela lau urteko txapelketan asko prestatu nintzen, gauza asko aldatzen saiatu nintzen eta ez nuen asmatu. Aurten *out* egon naiz, niretik kantatu dut, nik nahi nuen bezala. Akats batzuk egin ditut, baina jakinaren gainean akatsa egiten ari nintzela.

Hori ere beste zama bat izan da beraz, zure estiloarekin iritsiko ez zinela pentsatzea.

Bai, egia da. Nik bertso baten barruan ez ditut gauza asko esaten, bukaera da nire indargunea. Horrek arriskua ere badauka, behin bukaera ailegatuta ez baduzu oso indartsu bukatzen kolokan geratzen zarelako. Baina hori da niri gustatzen zaidana, hori da nik aditu nahi dudana bertsokera eta baita erakutsi nahi dudana ere. Nire buruari eta jendeari hori erakutsi nahi diet.

NEREA ELUSTONDO PLAZAOLA

«Nire ikara handiena Illunben txiki sentitzea da; ni izaten jarraitzeko nahiko indar izan nahi dut»

Legazpi, 1981. Etxeko sofán bere ikasleen matematikako azterketak zuzentzen ari zela Whatsapp bitartez jakin zuen finalista zela. Ez zuen espero, dagoeneko burua txapelketatik kanpo zuen. Ilusioa pizten dio bera finalean egoteak zenbat jende poztu duen sumatzeak. Behin baino gehiagotan ia-ia iritsi den arren, lehen finala da gaurkoa.

Orain fokupean zaude eta ez zaizkizu asko gustatzen fokuak.
Ez, ez ditut gustuko. Horretan partea izango dute norbere mamuek eta ahalduntzeek ere. Baina iruditzen zait txapelketan, dagoeneko lehen fasetik, asko galdetzen dela helburuez, asmoez...

iruditzen zait airezko gazteluak eraikitzen ditugula. Kea alferrik saltzea ez zait gustatzen eta horrelako gauzei horretatik pixka bat sumatzen diet. Egin beharrekoak oholtzan egin behar direla konbentzituruta nago. Ulertzen dut horrelakoak egin behar direla, kazetariak orrialdeak bete behar dituzuela, baina ez dakit benetan zer ekarpen egiten dion bertsozaleari.

Gainera, txapelketatik deskonektatuta bezala zinen dagoeneko.
Bai, egia da. Banekien aukeraren bat bazegoela, baina deskonektatuta nengoen. Dagoeneko urte batzuk baditugu eta ikasi dut tripak jaten egoteak ez duela



ezertarako balio. Gertatu behar dena gertatu egiten da eta gauza asko ez daude gure esku. Nire esku dagoena da behin aukera dudanean bertsoan egitea eta saiatzen naiz momentu horretan kezkatzen, ez lehenago.

Kezkatzen zaitu Illunbeko fokuak?
Kezkatzen nau Illunbeko jendetzak. Sekula ez dut hainbeste jenderen aurrean hitza hartu eta ez dakit nire gorputzak, nire buruak, nola erantzungo duten. Nire ikararik handienetakoa da han oso txiki sentitzea, handitasun horren barruan. Sentipen fisikoak kezkatzen naute. Ez nuke nahi egoerak berak ni irenstea. Ni izaten jarraitzeko nahiko indar izan

«Kezkatzen nau Illunbeko jendetzak. Sekula ez dut hainbeste jenderen aurrean hitza hartu eta ez dakit nire gorputzak, nire buruak, nola erantzungo duten»

AGIN LABURU REZOLA


«Nik gaien aurrean hanka bat aurrerago jartzen dut, gehiago arriskatzen dut»

1985, Astigarraga. Hirugarren finala du gaurkoa eta txapelketako saioetan puntu zakukada bilduta iritsi da. Konfiantza puntu onean iritsi da finalera.

Sekulako txapelketa egin duzu.
Ez dakit horrela definituko ote nukeen. Irunen sekulako kezkaekin sartu nintzen txapelketara. Euskal Herrikoetik kolpea hartuta nentorren, txapelketara bueltatzen nintzen lehen eguna zen, jokoan asko zegoen... Konfiantza dezenterekin sartu nintzen ustez, baina, nire buruari lehen hanka sartzea ikusi

nionean, mamu guztiak bueltan etorri ziren. Uste dut meritu handia izan zela egoera horri buelta ematea. Arrasateko saioan, ondo hasi nintzenez, askoz lasaiago kantatu nuen. Mamu horiek hor daude beti, baina behin finalera iritsita, lasaiago nago.

Finalera begira, zure bertsoakera besteen desberdina dela esan duzu. Zertan?
Nik uste dut abiapuntutik, bertsoa ulertzeko modutik, desberdina naizela. Horrek bertsoa egiteko moduan, hizkuntzaren erabilera eta gaien aurrean





nahiko nuke illunbeko oholtza handi horretan.

Txapelketa txukuna egin duzu.

Bai, uste dut erregular samar aritu naizela. Zaharrenetakoa izanik, adinak kezka berezia sortu dit [barreak]. Pentsa, parte hartzaileen artean Batxilergoan nire ikasle izandako bat zegoen. Horrek zure tokian jartzen zaitu. Adinari esperientzia deitzen diote eta badirudi gutxieneko batzuk behintzat bete egin behar dituzula. Nire kezka zen ipurdi bistan ez geratzea.

Askotan aipatzen duzu ipurdi bistan geratzearena.

[Barreak] Nire obsesioetako bat da. Tira, oso kezka erreala da, bat-batean aritzen gara eta edozein gairi buruz kantatzea egokitzen zaigu. Nik ez dakit denari buruz. Egoera horretan, bada aukera erreala bat ipurdi bistan geratzea.

Adinarena aipatu duzunez, oholtzan patxada pixka bat behintzat emango du, ezta?

Ez pentsa. Ni konturatzen naiz gero eta urduriago jartzen naizela. Gaztetxotan, egiten duzuna egiten duzula, balio du, gauza gehiago barkatzen zaizkizu. Baina adin bat daukazunean badirudi gauzak gehiago zaindu behar dituzula. Adinak, segur aski, gauzak erlatibizatzen lagundu dit, daukaten garrantzia baino gehiago ez ematen. Hori bai.

Orain Hernaniko bertso eskolan ari zara entrenatzen.

Bai. Donostian bizi naiz orain eta astean behin azaltzen naiz Hernaniko bertso eskolara. Bere garaian proposatu zidaten azaltzeko eta niretzat opari bat izan da, luxu bat.

Zergatik beti beltzez jantzita oholztan?

Oholtzan eta oholtzatik kanpo. Nire kolorea da, eroso sentiarazten nauena. Neutraltasuna ematen didala uste dut. Oholtzan presentzia fisikoa izatea ez da erraza, eta gutxiago ni bezala oso lotsatia baldin bazara. Oso-oso lotsatia naiz eta beltzez jantzita eroso sentitzen naiz.

kokatzeko eran desberdin jartzen nau. Estilo desberdina daukat eta beste zazpiek elkarren artean nirekin baino antz gehiago daukatela esango nuke. Nik gaien aurrean hanka bat aurrerago jartzen dut, gehiago arriskatzen dut eta defentsa, atzeguardia, ez dut hainbeste zaintzen. Erasora joaten naiz gehiago.

Arriskatu egiten duzula diozu.

Politikoki zuzenaren marra oso presente dago gaur egun eta zu beti muga-mugan ibiltzen zara. Egurto zaituzte horregatik.

Bai eta oso gaizki pasa izan dut. Lehen ez bezala, orain frankotiratzaileak ikusten ditut. Marra gorri horiek oso presente daude eta pasatzeko permisibitate askoz gutxiago dago. Lehen, pasatzen bazinen, pasa egin zinen eta hor geratzen zen. Jendeak ulertzen zuen pasatu egin zinela eta kito. Orain, horrek guztiak bolumen askoz handiagoa hartzen du.

Txapelketa hau prestatzen hasi nintzenetik hori landu dut; konfiantza



«Zuloan egon naiz, gaizki pasatu dut eta dezenteko lanketa egin behar izan dut nire buruarekin berriz konfiantza izateko eta igerilekura salto egiteko»

izan nire buruan eta berriz ausartu marrara hurbiltzen. Lehenago, marra ikusten nuenean marrara hurbiltzen saiatzen nintzen, ahalik eta gertuen, horrek daukan arriskuarekin. Gero, beldurra hartu nuen eta marra ikusiz gero, ez nintzen ausartu ere egiten gerturatzerara. Orain berriz ausartzen naiz marrara hurbiltzen.

Ariketa kontziente bat egin duzu, beraz.

Zuk zure buruan konfiantza eduki behar duzu; nik hau kantatu dut eta berretsi egiten dut. Hanka sartu dut? Ados, hanka sartu dut eta onartzen dut. Baina, egiten duzun guztia, sinatuta. Ariketa hori egin dut. Egurra jaso behar badut, jasoko dut, baina ni nahiko kontziente naiz marra gorri horiek non dauden. Egia da bat-batean ari zarela, segundo erdi batean neurtu behar duzula, errima batek esan nahi ez duzuna esatera eraman zaitzakeela... baina nik uste dut bertso jolasa hor dagoela, arriskatu egin behar dela. Nik ere egin dezaket bertsotan marra

gorritik urrunduta, baina horretarako mezetara ere joan naiteke.

Arriskuak hartzeko konfiantza nahikoarekin zaude orain.

Bai. Ni blokeatuta egon naiz eta frankotiratzaile horiek asko eragin didate. Zuloan egon naiz, gaizki pasatu dut eta dezenteko lanketa egin behar izan dut nire buruarekin berriz konfiantza izateko eta igerilekura salto egiteko. Gero ura egon daiteke edo ez. Baina lehen nik beti salto egiten nuen, ura zegoen edo ez begiratu gabe. Orain berriz ausartzen naiz salto egitera, baina zehar begiratu bat egiten dut ura dagoen edo ez ikusteko.

Illunben salto egingo duzu?

Asmoa hori da. Nik ez daukat ezer gordetzeko. Nire bertsokerarekin joango naiz, nire estiloarekin. Eta nire estilo horrek, ondo eginez gero, badakit emaitza oso onak ematen dituela, baita txapelketan ere. Eta orain arte emaitza onak eman dizkit.



Urretxu, 1972. Gipuzkoako laugarren finala du. Beteranoa, 47 urterekin ezustekoa emateak daukan graziaren jakitun eta lehiaren estutasunetik inoiz baino askeago.

Jende askoren galdera: ze nezesidade dauka Jon Maiak Gipuzkoako Txapelketan aurkezteko?
Bai, badakit jende askok galdetzen duela hori. Nik niregatik egiten dut gehiago. Zalantza handiak izan nituen izena eman edo ez. Gainera, oso aurretik eman behar da izena eta une horretan burua ez neukan txapelketan. Zalantza horretan, pentsatu nuen ez banuen izena ematen erretiratzea bezala zela, besterik gabe erretiratzea. Euskal Herriko Txapelketara begira eman nuen izena. Gipuzkoakoan ez baduzu parte hartzen, ezin duzu Euskal Herrikoan parte hartu. Aurreko Euskal Herrikoan BECen atean geratu nintzen eta ez nuen besterik gabe utzi nahi txapelketa. Horregatik eman nuen izena Gipuzkoakoan.

Badakit nire txapelketetako ibilbidean azken zatira iritsi naizela eta ondo agurtu nahi dut, bai Gipuzkoakoan eta bai Euskal Herrikoan. Badakit bukaerara iristen ari naizela eta bukaera ona eman nahi diot.

«Gauza asko egiten ditut. Bertsolaritza niretzat enborra da, eta, besteak, adarrak. Txapelketak erdigunera bueltatzera behartzen nau eta mesede egiten dit, bestela asko dispersatzen naiz»



JON MAIA SORIA

«Oraingo hau da jokatu ditudan txapelketa guztien artean gehien asebate nauena»

Ibilbide oparoa eta askotarikoa daukazu. Txapelketaren arantza kentzeko beharra al daukazu?
Ez, ez daukat behar hori. Daukadana da zentratzeko beharra. Gauza asko egiten ditut eta txapelketak behartzen nau etxera bueltatzera. Bertsolaritza niretzat enborra da, eta, besteak, adarrak. Txapelketak erdigunera bueltatzera behartzen nau eta mesede egiten dit, bestela asko dispersatzen naiz.
Bestetik, nahiz eta gauza batzuk oso gazterik egin ditudan, uste dut nahiko berantiarra naizela gauza batzuetan. Beti pentsatu izan dut nire onena berandu samar iritsiko dela. Niretzat Jon Lopategiren eredia oso garrantzitsua izan da. Euskal Herriko txapela 55 urte zituela jantzi zuen. Ez dut pentsatzen Euskal Herriko txapela irabazte horretan, baina nirea heltze prozesu bat dela uste dut; umetan euskaraz pentsatzen hasi nintzenetik orain arte. Eta pentsatzen dut gero eta hobeto egiten dudala. Ilusio hori daukat.

Zure onena etortzeaz dagoela pentsatzea sekulako jarrera da, ezta?
Bai, inoiz ez naiz geratu erabat gustura egin dudan txapelketa batekin. Oraingo hau da jokatu ditudan txapelketa guztien artean gehien asebate nauena. Txapelketa guztietan sufrimendu osagai handia izan dut; blokeatu eta asko estutzen naiz. Txapelketa honetan oraindik ez zait gertatu eta oso prozesu atsegina izaten ari da. Plazetan oso gustura nabil eta txapelketan ere bide ona hartu dudala uste dut.

Desberdin prestatu duzu?
Erabat desberdin planteatu dut. Ez nuen sufritu nahi eta berandu hasi naiz prestatzen, sei-zazpi bertso eskola bakarrik egin ditut. Ez naiz beste saioak ikustera joan. Etxean errimak pixka bat landu ditut, baina konturatu naiz aurreko

txapelketetako prestaketaren emaitza orain ari zaidala etortzen.

Ez duzu sufrimendurik transmititu.
Ni horrela nagoelako. Niretzat nire bizitzako partidana bola estra bat da txapelketa hau, eta egin dudana lanketa nagusia azken urteetan ikasi ditudan bizitzako lezio denak presente izatea da. Gai bat entzutean, horietatik tira egiten dut. Askok irakurri dut, asko hausnartu dut, asko landu ditut jarrera pertsonalak... hori guztia ekarri nahi izan dut oholtza gainera. Lanketa desberdin honek emaitza onak ekarri dizkit. Nik ez dut uste teknikoki nabarmendu naitekeenik, ni baino gazteagoak diren bertsolari horiek denak teknikoki oso onak dira. Gaiei heltzeko moduan bereizi naiteke; jarrerai eta bizitzaren ideologiari begira.

Lanketa desberdina, emaitza pozgarriak eta helburua?
Nire ilusioa, ametsa eta motibazioa bizi naizen momentuan eta gizartean eragitea da. Beste Euskal Herri batekin amesten dut eta nire bide guztiak horri begira daude eta, ahal bada, nik ongi pasatuz. Hori da nire leloa eta iparorratza eta bertsoa horren zerbitzura jartzen dut, ja ez diot beste emaitzarik eskatzen nire buruari. Hori asko barneratu dut eta sekulako liberazioa sentitu dut lehiarekin.

Illunbera iristeko puntu ona da.
Oso momentu onean nago, oso txukun daukat burua eta bertsoa bere jario naturalean etorri egiten zait. Askotan, hainbeste prestaketarekin, errimarekin, hainbeste gauza esan nahiarekin... bertsoari ahaztuta iristeko bidea labirinto bihurtzen zaio. Aurten erabat aldatu dut hori eta bertsoari uzten diot datorren bezala etortzen. Plazetan daukadan arintasuna eta umorea ekarri ditut txapelketara. Jon Maia bertsolaria eta Jon Maia pertsona oso konektatuta daude.

Lasarte-Oria, 1992. Bere lehen finala du. Txapelketatik kanpo arnasa hartzeko modua dagoela garbi duen arren, txapelketan ere badakiela erakutsi nahi du Illunben. Eta hankak lurrean itsatsi.

Finalean zaude. Orain arteko bidea bidezidorretatik egin duzula esan duzu, zeudenak baliatuz eta berriak sortuz. Txapelketatik kanpo epela topatzea zaila balitz bezala.

Nik bai sentitzen dut hor inbutu bat dagoela. Gazte sariketetan eta eskolartekoetan pixka bat nabarmentzen zarenean, herrialdeko txapelketan zure momentua iristen da. Badirudi hor egin behar duzula, eta, ez baduzu egiten, sistemak baztertu egiten zaitu eta beste norbaiti ematen dio leku hori. Nire sentsazioa izan da momentu batzuetan gogorra izan dela, baina, aldi berean, opari bat izan dela pauso horiek horrela ez betetzea, horrek aukera eman baitit beste mila saltsatan aritzeko eta sortzeko. Batzuetan, kanpotik iritsi izan zaidan mezua ondorengoa izan da; «bai, bai, ari zara gauzak egiten, baina gero, plaza hegemoniko horretan, egin behar den tokian, ez duzu inoiz ezer demostratu». Sentitu izan dut txapelketan ere demostratu beharra eta, zentzu horretan, lasaitua izan da finalera iristea. Ez nuke nahi horrek balioa ematea txapelketatik kanpo egin dudan guztiari, horrek berez balioa daukalako. Baina lasaitu bat sentitu dut, nahiz eta badakidan kontua ez dela hor bukatuko, gero Euskal Herrikoa etorriko da...

Baina aurten, behintzat, finalista berrietakoa zara eta hori toki ona da.

Bai, toki ona da. Eta ondoan ditudanekin oso pozik nago. Oihana [Iguaran] niretzat sekulako babesa da, batera hasi ginen bertso eskolan; aurten Alaia [Martin] eta Beñatekin [Gaztelumendi] entrenatu dut txapelketa hasieratik... Sekulako babesa sentitzen dut.

Final parekidea da eta hala nabarmendu dugu. Nabarmendu egin behar da hori?

Final parekidea da eta kuantitatiboki gauza objektiboa da. Garrantzia dauka eta

ANE LABAKA MAYOZ

«Emakumeen gaiak enpatxua sortzen duen txapelketa bat parekidea denik ezin da esan»

garrantzia eman behar zaio. Faltan sumatzen dut nabarmentzea parekidea izatekotan, kuantitatiboki dela eta, gainera, hori icebergaren punta baino ez dela. Hasiera-hasieratik txapelketan parte hartu genuen 84 bertsolarietatik 17 ginen emakumezkoak, eta, hurrengo fasean, 42 bertsolarietatik 10. Illunbeko gailur horretan lau eta lau arituko gara, baina hori tranpa egitea dela iruditzen zait. Behera begiratu behar da eta zer dagoen ikusi.

Horrez gain, kualitatiboki ere parekidea izan beharko luke; gaien aldetik, epaileek lanketa bat egin dutelako...

Zuk ez duzu txapelketa hau parekidea balitz bezala bizi.

Ez. Nire bertsoaldi gustukoenetako Oiartzungo bakarkakoa izan zen [etxera korrika joaten den emakumearen azalean, norbait segika zuela sentitzen zuelako].

«Illunbeko gailur horretan lau eta lau arituko gara, baina hori tranpa egitea dela iruditzen zait. Behera begiratu behar da eta zer dagoen ikusi»



Jende askok nabarmendu zidan gustatu zitzaiola eta oso erreala zela irudikatu nuen egoera. Baina beste askok, gizonaezkoak, esan zidaten gai hori askotan abestu dugula. Benetan? Gai hori gutxitan entzun izan da, baina beste gauza bat da guk egunero bizi dugun gai batek nolako enpatxua sortzen duen publikoarengan. Gurea beti da enpatxua. Ez diezadala inork esan horrelako gauzak entzuten ditudan txapelketa bat parekidea dela. Egia da detaileak egon direla, aldaketak sumatu direla, baina oraindik bestelako jarrerak gailentzen dira.

Txalo egiteko modua aldatu da txapelketan. Lehen ia dena txalotzen zen eta orain txaloak zorrotzago jotzen dira.

Bai, eta hori positiboa da. Bertsolariak aldatzen ari garen bezala entzuleak aldatzen ari dira. Saio bakoitzak marko bat eraiki du; saio batzuetan gazte gehiago zeuden, emakume gehiago eta horietan nabaritu da txalo egiteko modua zehatzagoa dela.

Kasik 40 urte Lasarte-Oriako inor ez dela Gipuzkoako finalean aritu. Patxi Etxeberria izan zen azkena.

Bai, garrantzitsua da herriarentzat eta niretzat. Sekulako babesa sentitu dut, baita bertsozaleak ez diren herritarren aldetik ere. Eta bertso eskolan dabiltzan gazte guztientzat ere garrantzitsua da. Badirudi ez dela espero Lasarte-Oriatik bertsolaririk sortzea, baina egia da poz kolektibo bat izan dela herriarentzat.

Zein da helburua?

Han nagoela kontziente izan nahi dut eta hankak lurrean izan. Ez dut puxika batean egon nahi. Oso emozionala naiz eta hori neurtu nahiko nuke pixka bat.



BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA

«Uste dut nire bertso ibilbidea orain dagoela nire izateko moduan uztartuta»

Añorga, 1987. Gipuzkoako txapelduna 2015ean eta txapeldunordea aurreko bietan. Txapelketa zalea da.

Txapelketan eroso sumatu zaitugu.

Nire lekuan egon naizela sentitu dut eta ez dut uste nire lekuari zegokiona baino gehiago nabarmendu naizenik. Egoerak nik nahi nituen bezala eraman ditut eta pozik nago alderdi horretatik.

Euskal Herrikorako egindako prestaketa orain ari omen zara igartzen.

Intuizio batzuei segika hasten zara lanketa bat egiten. Gero, batzuetan

gertatzen da zure momentuak ez duela bat egiten intuizio horrekin eta ez zaudela gorputzaldi horretan. Aurreko txapelketa nagusiko finalean gertatu zitzaidan; hara iritsi eta egin nuen lanketak han egin behar nuena egiteko ez zidala balio sentitu nuen. Orain, alderantziz. Sentitzen dut lehen egin nuen lanketa horrek balio didala gaiei nahi diedan bezala heltzeko eta nire buruarekin erosoago sentitzeko.

Hala ere, oraingo txapelketa ere asko prestatu duzula nabari da.

Bai. Asko gustatzen zait txapelketako lanketa eta txapelketa bera, genero bezala,



Amasa-Villabona, 1991. Bigarrenez kantatuko du Illunbeko finalean eta berria izatetik beteranoa izatera bidea zein motza den bere azalean probatu du.

Tolosako finalaurrekoan, saioa bukatu, oholtzatik jaitsi eta aulkiak jasotzen ikusi zintudan.

Tira, bertso eskolako lagun guztiak hor neuzkan eta normalena hori zen, ni ere desmuntatzen aritzea.

Sortzaile berezia da bertsolaria alderdi horretatik.

Tira, guk oso natural jaso dugu hori. Hori da inguruan ikusi duguna. Hala ere, bertso eskolakoen ondora bueltatzea bada erosoago sentitzeko modua, berriro taldeko kide sentitzekoa, oholtzatik epelera jaisteko modua.

Bigarren finala, erabat desberdina. Eskatzen zaizuna ere, desberdina.

Egia da ni ere beste puntu batean nagoela eta emateko gogoz nagoela edo, behintzat,

OIHANA IGUARAN BARANDIARAN

«Jendaurrekoak gure burua ezagutzeko ematen digun aitzakia luxu bat da»

ematen saiatzeko. Duela lau urte helburuak beteta bezala iritsi nintzen finalera eta kasik ospakizun kutsua zeukan. Final honek ere badu, zalantzarik gabe, ez baita erraza izan finalean sartzea. Baina uste dut lau urte hauetan asko ikasi dudala.

Nola heldu zara, hazi zara, oholtza gainean?

Nire burua deskubritzen joan naiz bertsolari bezala, plazandre bezala. Hasieran zoratzen, txapelketan oro har asko gozatu nuen eta gero plazaz plaza zer



esanik ez. Umetan nire idoloak izandako haiekin kotxea partekatzea, beren eskutik ikastea, aholkuak entzutea, saioa ondoren nola aletzen duten ikustea... Ilusio eta gogo handiarekin bizi dudan prozesua izan da eta oraindik ere horrela bizi dut.

Horrez gain, zure burua jendaurrean kokatzen ikasten duzu, egoera irakurtzen eta kokatzen eta jendeak zugan zer irakurtzen duen ulertzen. Gero, horrek guztiak sor dezakeen segurtasun falta edo txikitasuna kudeatzen ikasi behar duzu. Zentzu horretan, Euskal Herriko txapelketan gaizki pasatu nuen eta oraindik digestio fasean nago. Konfiantza berreskuratzeko prozesu bat behar nuen eta egin dut. Izan dira esateko ezer interesgarririk ez neukala sentitzen nuen momentuak eta nik ez dut sormena horrela bizi nahi. Distantzia hartu eta nire burua birkokatzen aritu naiz. Prozesua luzea eta mantsoa da, baina uste dut jendaurrekoak gure burua ezagutzeko eta gure buruaren lanketa egiteko ematen digun aitzakia luxu bat dela. Zenbait

oso berezia iruditzen zait. Aurten ere oso eroso sentitu naiz lanketa horretan.

Lana norberak bere buruarekin egiten du etxean. Eta oinez ere dezente egiten dut. Oinez nabilela ideia dezente mugitzen zaizkit eta asko laguntzen dit. Baina, gero, lanketa pertsonal horrek partekatzeke espazio batzuk behar ditu, txapelketako tentsiotik apartekoak. Eta aurten espazio horiek topatu ditut; Alaiarekin [Martin] dezente aritu naiz, Ane Labakarekin, Ainhoa Agirreazaldegirekin, Uxue Alberdirekin...

Denak emakumeak aipatu dituzu.

Bai, eta anaiarekin ere dezente ibili naiz. Baina uste dut nire bertso ibilbideak horra eraman nauela eta espazio horietan eroso sentitzen naiz.

Zure bertso ibilbideak eta zure izaerak eraman zaituzte espazio horietara?

Uste dut nire bertso ibilbidea orain dagoela nire izateko moduan uztartuta. Hasieran oso desberdina zen Beñat oholtzatik behera eta Beñat oholtza



«Bertsolaritzan une honetan aldaketa hiru lekutatik datorrela uste dut: lehena, belaunaldi berrietatik; bigarrena, bertsolaritzak hainbeste dentsitate ez duen espazioetatik, eta, hirugarrena, emakumeen lanketatik»

gainean, eta orain pozik nago bien arteko distantzia gero eta motzagoa delako. Horretan laguntzen nau ondoan dudan jendeak, nik eramatea nahi dudan lekuetara eramaten nau. Alde horretatik oso pozik nago.

Genero ikuspuntua asko landu duzu.

Askotan esaten da genero lanketa norberak egiten duela bere buruarekin eta gero eramaten dela praktikara. Nire kasuan alderantziz gertatu zait, plazan arituz hartu dut nire generoaren kontzientzia eta ez da beti eroso izan. Nik uste dut aurreko txapelketa nagusian horrek ere eragin zidala.

Bertsolaritzan une honetan aldaketa hiru lekutatik datorrela uste dut: lehena, belaunaldi berrietatik –gu ja ez gara–; bigarrena, bertsolaritzak hainbeste dentsitate ez duen espazioetatik –Añorga ez dago hor–, eta, hirugarrena, emakumeen lanketatik. Justu hiru puntu horietako batean ere ez nago eta ez dut uste egon beharko nukeenik. Eta dezente kostatu zait hor kokatzea, sentitzea nire

ahotik berrikuntzarik ez dela etorriko. Orduan, askotan egiten dudan galdera da ea zein den nire funtzioa momentu honetan oholtza baten gainean. Nire intuizioa da nagoen lekutik zilegitasun bat irabazi dudala urteotako ibilbidean eta zilegitasun horrek laguntzen duela oholtzan gauza batzuk aldatu daitezen. Eta, bestetik, bertsolaritza bera aldatzen ari da. Dialektikarako joera izan dugu eta horrek traba egiten du aldaketa batzuk oholtzan gertatu daitezen. Posizio pribilegiatu eta ez pribilegiatu baten arteko dialektikan beti batek irabazten du. Baina, bakoitzak bere lekuaren kontzientziatik, logika hori puskatu eta kolaboratibo jartzen bagara, gaiak beste era batera lantzen dira eta askoz ibilbide luzeagoak egin daitezke gaien bueltan.

Aurreko txapelketa nagusian horretan saiatu nintzen eta ez zitzaidan ondo atera. Gainera, jende guztiak galdetzen zidan ea triste ote nengoen. Kontua ez zen hori, profil baxuago bat markatu nahi nuen eta ez nuen lortu. Aurten topatu dut nire espazioa eta gustura ari naiz hortik.

«Euskal Herriko txapelketan gaizki pasatu nuen eta oraindik digestio fasean nago»

momentutan, gai batzuei esker, inoiz pentsatuko ez genituzkeen gauzak pentsatzera iristen gara. Hori sekulakoa iruditzen zait.

Zure agurrak gozamina dira.

Batzuetan, momentuari erantzuteko, gorputzak eskatzen dit. Ihes egiten laguntzen dit eta lasaitu egiten nau bi baino handiagoa den motibo bat edukitzeak, sentsazio kolektibo bati kantatzeak.

Eta kantatzea maite duzu. Bertsoa dotore saltzen duzu.

Kantatzea gustatzen zait, nahiz eta txapelketan, tentsioagatik, beti izaten dudan marranta sentsazioa. Eta jende

askok esaten dit kantatzearena. Behin Unai Muñozari entzun nion eta geroztik askotan izaten dut buruan. «Nire kantakera nabarmentzen dutenean, kuadrillan bat guapoa dela, besteak sekulako gorputza duela eta ni oso jatorra naizela esaten dutenean bezala sentitzen naiz». Nik ere sentsazio hori izaten dut. Ondo kantatu omen dut, baina zerbait esateko ere baneukan e? [barreak]

Final parekidea, zenbakitan.

Nabarmendu behar da edo ez?

Garrantzitsua da atzetik dagoen lana nabarmentzea, iraileko fasean zein gutxi ginen esatea [42tik hamar], egiteko zenbat geratzen den esatea... Egia da bertso eskoletako neskatoak publiko artean ikusten ditudanean sentitzen dudala haientzat garrantzitsua dela finalean lau emakume aritzea. Normalizatzea gustatuko litzaidake, besterik gabe bistan geratzea. Hortik aurrera, bertsolari bezala zein desberdinak garen nabarmentzea gustatuko litzaidake. Ez gara bloke bat.





Arantxa Urbe
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Kaligrafiak

Tutoreak galdera luzatu dio ja unibertsitatera begira ari den ikasleari: «Zer lan egitea gustatuko litzaizuke etorkizunean?». Trantze horretan bere burua aurkitu duenak badaki garai horretan zeinen sakona bihurtzen den zalantzen mundua.

Gaztea buruan bueltaka darabilkiena esaten hasi zaio tutoreari, duda-mudan, bere soslaia ongi ezagutu eta nora-ezetik aterako duen itxaropenaz: «Zure idazkera ulertuko duen norbait aurkitzen baduzu, biak espioitzan jardun zaitzekete!».

Gazteari kolpean etorri zaizkio eskolan ibili den urtetan bere idazteko eraz esan dizkieten guztiak: txikiegiak direla bere hizkiak; ezin dela ulertu idatzi duena; indar gutxiz markatzen duela paperean; eta abar. Izan da letra polita eta originala duela esan dionik, ondoren “baina” batez osatua betiere, ordea.

Gazte hura egun helduarora iritsia da, dagoeneko. Espioitzarekin zerikusirik ez duten arloetan aritu da lanean. Haatik, nola diren gauzak, kilometroak eta kilometroak osatuko lituzketen paperetan izkiriatzeari suertatu zaio.

Lehengo batean, idazketa eta irakurketa prozesuen irakaskuntzan aditua den bati entzun zion esaten haiek letragatik jakiten zutela non ikasitakoak ziren lagunak: La Sallekoak, Marianistekoak, Jesuitetakoak edo dena delako eskolakoak. Hau da, eskola bakoitzak bere idazkera zuela, eta, handik pasatako ikasleek, denek, grafia bera egiten zutela.

Adituak bi pentsamendu ekarrarazi zizkion gogora, tupustean: alde batetik, idazketa eta irakurketa prozesuarekin zerikusi duenak nola erakartzen duen –bere eskolaldian idazkerarengatik esan zizkietenak, espioia izateko gonbidapena barne, utzi dioten arrastoa, segur aski–; eta, beste pentsamen-

dua, eskola uniformizatzailea dela esaten dutenentzako adibide aparta dela entzundakoa.


Hezkuntza arloan askotan adibide gisa jartzen diguten Finlandia «eredugarrian», 2016an utzi zioten eskuzko idazkera (kaligrafia) irakasteari, letra etzanak egiten irakasteari, hain zuzen. Eztabaida sutsua piztu zuen neurriak: han, eta hara begira gauden herrialde guztietan, noski. Hautsak harrotu ziren, testu prozesadoreen aroan eskolan kaligrafiak zentzurik ez duela defendatu zutenak izan ziren; eta eskuz idazteari espezifikoki loturik dagoen neurona-prozesu bat aktibatzen dela egiaztatu zutenak ere bai; batzuen eta besteen artean, beste hamaika iritzi azaldu ziren.

Suposatzekoa da eskuzko idazkera/testu prozesatzaile bidezko idazkera eztabaida aldera genezakeela bere garaian eragiketa matematikoen kalkulua eskuz egin/kalkulagailuz egin ika-mikarekin. Gauza guztietan bezala, orekan

egongo da gakoa: zer, zertarako, hizkien birek eta norabideak nola, “hizki lotua” noiz eta gisakoak ekarri beharko ditugu eztabaidaren erdira, horretarako.

Kallos (“eder”) + *graphie* (“idazkera”). Horixe esan nahi du kaligrafiak. Gaur eguneko begietara, eskola umeekin baino zerikusi handiagoa behar luke artearekin, idazkera ederraren artearekin, akaso. Eskolak izan zituen beste garai batzuk, “letra dena zen garaia”. Horregatik ere esango dute, beharbada, XXI. mendeko ikasleak XIX. mendeko moduekin hezten ari garela.

Espioi izateko aholkua jaso zuen gazte izandakoak lasai idatziko dio eskuz Olentzerori... Olentzerok letra guztiak irakurtzeko ahalmena duela jakin zuenetik konplexurik gabe idazten dio eta bere idazkera hobetu dela esango nuke. Nik, badaezpada, ordenagailuz idatzitako hizkiak utziko dizkizuet hemen, denentzat ulergarriak izango zaizkizuelakoan: URTE BERRI ON! •



Lasai idatziko dio eskuz Olentzerori... konplexurik gabe.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Heriotza

Hainbat terapeutaren eta gaian adi-
tuak direnen arabera, bi urte irauten
du izaki maitatu baten galeraren do-
luak. Bi urte horietan fase ezberdine-
tatik pasa behar omen da, edo pasa-
tzen da nahitaez: ukazioa,
negoiazioa, amorrua eta, azkenik, onarpena. Ez
dakit hori egia den eta bakoitzak horrelako egoera
batean sentitzen duen mina neurtu daitekeen, bai-
na egia da gure aita galdu genuenetik, 2017ko urri
hartan okerre gertatuko zenaren berri izan ge-
nuenetik, fase askotarikoak bizi izan ditugula nire
famiiliako kide bakoitzak. Onarpenera baino, etsi-
pena sentitzera iritsi naizela uste dut, edo, beste
modu batean esanda, nire ondoan ez egotera ohitu
naizela uste dut. Zorabioa eta sufrimendua joan di-
ra, baina mina geratzen
da. Sufrimendua, mina as-
katzeko ezina, gaizki sen-
titzearen betebeharra,
erruarekin lotu izan dut
askotan. Hobekixeago
sentitzen nintzen egune-
tan nire aitari huts egiten
niola sentitzen nuen eta
berriro itzultzen nintzen
zulora. Orain ohartu naiz
sufrimendu hori ez zela
batere sakona, dagoena
onartu eta aurrera jarrai-
tzeko ezintasuna baino ez da sufrimendua. Mina,
aldiz, askoz sakonagoa da, eta bere gogortasunean
hazteko eta aurrera jarraitzeko aukera ematen du.

Asteazkenean bi urte bete ziren aitak azken has-
perena bota zuenetik. Minak batzuetan nostalgiari
uzten dio lekua, irribarreari ere bai aitaren istorio-
ren bat burura datorkidanean. Eta, gauza guztien
gainetik berari eta bere izateko moduari esker ona.
Inguruan ere mina oso gertutik ezagutzen duten
lagunak ditut noski, eta, besteen min istorioak eza-
gutzen ditudalako, eskertzen diot ere behar bezala
agurtzeko eman zidan aukera. Gure aitak alde egin
aurretik izan nuen behar nuen tartea eskerrak

emateko eta esan behar nizkion gauzak esateko. Ez
hori bakarrik, gaixotasunaren aurretik ere berare-
kin aspalditik nituen kontu pendienteak, itxita. Es-
kertuta sentitzen naiz ere bere azken hilabeteetan
jaso zuen arreta eta zaintzarengatik, bai ama, neba
eta hiruron aldetik, baita hainbeste maite zuten se-
nide eta lagunen aldetik ere. Horien artean, esker-
tzekoa ere Nafarroako Ospitalean lehenengo, eta
Iruñeko San Juan de Diosen, langileen aldetik jaso
zuen tratua. Askotan, Osasun zerbitzuan lan egiten
duten lagunak ere baditudalako, borondatez bete-
tzen dituztelako baliabide faltak uzten dituen hu-
tsuneak.

Ez da kontu txikia azken hau. Heriotza duinaren
aldeko borroka funtsezkoa da giza eskubideen
ikuspuntutik, baina baita ikuspuntu politiko bate-

Heriotza duinaren aldeko borroka
funtsezkoa da giza eskubideen ikuspuntutik
eta ikuspuntu politiko batetik. Are gehiago
gaixotasuna eta heriotza hainbeste
desnaturalizatu duen gizarte honetan

tik ere. Are gehiago gaixotasuna eta heriotza hain-
beste desnaturalizatu duen gizarte honetan. Herio-
tza kontu pribatu bat baino ez balitz, aberatsek
baino ezinen lukete izan heriotza duina. Gu, noski,
ez gara aberatsak, eta sistema publiko ahulago ba-
tean nire aitaren sufrimendua hirukoitza zatekeela
ere argi daukat. Berriro datorkit burura zaintzak
erdigunean jartzearen beharra, bizitza guztiaren
zikloan, baita amaieran ere. Zaintza Estatuak bere
gain hartu behar duen kontu zentrala da, momen-
tu honetan lehentasuna izan beharko litzateke, ba-
liabide gehiago bideratuz eta langileen borondate
onaz eta profesionaltasunaz baliatu gabe. •

TRADIZIOA JANTZIZ

Arbasoek tentuz landutako baserritar jantziak gaur ere zaintzeko beharra

Gure arbasoen historiaren oihalkiz jositako trajeak dira baserri-tar jantziak, ehunka formadun oihalen eta koadro nahiz puntudun estan-patuen konbinazioaren emai-tza. Egunerokotasuna galdua duten arren, data zehatz ba-tzuetan protagonismo osoa hartzen dute, aurki etorriko den San Tomas egunean, kasu-rako. Euskal kulturaren parte dira baserritar jantziak, eta, be-raz, zaindu beharreko altxorrak. Hori iritzi diote bederen Gero Axular dantza talde donostia-rreko kideek, eta santomasetan baserritar jantziez atondutako Alde Zaharra ikustea desio dute, lasaiera handiko gonak egoki haizatuta nahiz gerrikoak be-har den bezala lotuta.

 **KULTURA /** Maddi Txintxurreta Agirregabiria

San Tomas bezalako egunetan baserritar jantziak erabili nahi dituen orok konplexurik gabe eta harrotasunez jantzi ditzala nahi dute Donostiako Gero Axular dantza taldeko arduradunek. Horretarako eta jantzi tradizionalen inguruan gizartearen kontzientziazioa lortzeko, Dotore Jantzi ekimena jarri zuten martxan.

Gero Axular ez da dantza talde arrunt bat. Euskal dantza klaseak emateaz gain, baserri-tar jantzi tradizionalei zor zaien begirunea emateko Do-tore Jantzi ekimena bultzatzen ari dira azken urteetan. Kezka batetik sortu zen egitasmoa martxan jartzeko beharra. «Ikusten genuen askok mozo-rra bezala erabiltzen dituztela jantziak, ondo pasatzeko egu-netan soilik. Gure arbasoek lan pila bat egin zuten modu honetara jantzeko, eta iristen

da egun bat, noiz gure arbaso-ak bezala jantzi nahi dugun, eta edozer gauza janzten du-gu. Berdin zaigu gerrikoari ko-rapilo bat egitea sanfermine-tan bezala, txapela alderantziz janztea eta, gainera, katiuska batzuk jartzea jantziaren gai-netik», agertu du Juan Luis Unzurrunzaga Gero Axularre-ko kideak.

Dantza taldekoek uste dute, aitzitik, baserritar jantziei du-ten balioa aitortu behar zaiela, iritzi diotelako «orain garen

Gero Axular taldeko bi dantzari, bata besteari zapi-a lotzen.
Jagoba MANTEROLA | FOKU




Juan Luis Unzurrunzaga, Gero Axular dantza taldeko bultzatzaileetako bat. J.M. | FOKU

USTEAK APURTU, GAZTEAK DANTZARAZTEKO

Gero Axular dantza taldeak 2004an hasi zuen bere ibilbidea; hasiera batean, Axular Lizeoaren ekimenez, baina segituan zabaldu zuten beren egitasmoa ikastetxetik harago. Euskal dantza irakatsi eta sustatzea zuten helburu, dantzariak sortzea finean, baina taldearen egitekoak berrasmatu behar izan dituzte azken 16 urteetan. Izan ere, eta Unzurrunzagak hala esplikatu du, zenbait haurrek ez zuten luze irauten dantza klaseetan, eta beraiei nahiz gazteei egokituko zitzaien egitasmoen bila jardun zuten pentsatzen. Ekitaldiak prestatzen hasi ziren haurrek jendaurrean dantza zezaten, agertoki desberdinak baliatzen zituzten, edo bi urtean behin berritzen duten ikuskizuna prestatzen hasi ziren, beste gauza askoren artean. Baina arduratuta zeuden, halaber, gazteen artean zabalduta zeuden uste oker batzuegatik. Batzuk aipatzearren, dantza

«nesken gauza» zela, edo «kaseroena». Uste hori iraultzeko modu bat atzerrira bidaiak egitea izan da, Unzurrunzagak dioenez. «Kanpoan, haurrek ikusten dute badirela taldeak, beraien adinekoez osatuta, eta mutil pila bat dituztenak», azaldu du. Hala, jada 58 aldiz atera dira atzerrira, Europako hainbat herrialdetara. «Lan egin behar da mutilak dantzaren, poesiaren edo arteen munduan sartzeko». Bidaien bitartez, gainera, euskal kultura erakusteko xedea betetzen dute, «ikus dezaten diferenteak garela, gure hizkuntza propioa daukagula, gure dantzak ditugula, gure jantziak, eta, gainera, gure jantziez harro gaudela». Bide luze horren uzta jasotzen ari dira. 280 dantzari dira gaur egun taldean, eta Unzurrunzagak nabarmendu duenez, haurrek jada ez dituzte euskal dantzak uzten hasi eta pare bat urtera, luzaro irauten dute Gero Axular taldean.



Baserritar Jantzien Lehiaketan
detaileak baloratzen dituzte:
gerrikoa eta abarkak nola
lotzen diren edo zapia nola
jantzen den, kasurako.
J.M. | FOKU

bezalakoak gara atzetik gauza batzuk egin direlako, tartean, jantziak eta hauek jantzeko moduak». Hartara, kontzientziatze lana egiten ari dira Dotorre Jantzi ekimenaren bidez, «harro senti gaitezen gure jantziez».

Bide horretan, ekimen ugari egiten dituzte, eta Baserritar Jantzien Lehiaketa da sona handiena duena. San Tomas egunean egiten dute, eta aurtentengorako, izena emateko epea zabalik dago, Dotorre Jantziren webgunean. Unzurrungagak nabarmendu duenez, ez da baloratzen jan-

tzi «garestiena», detaileak baik: «Nola eramaten duzun jantzia, abarkak, gerrikoa edo zapia nola lotu dituzun», adibidez. Baserritar jantziek ikusgarritasuna lortzeko helburuz antolatzen dute lehiaketa; abenduaren 21ean, beraz, ikuskizun aparta onduko dute Donostiako Bulebarreko kioskoan. «Lehiaketaren bidez nahi duguna da jendeak ikus dezala jantzi desberdinak daudela, baita hauek jantzeko moduak ere», dio Unzurrungagak.

JOSI ETA HARRO JANTZI

Baserritar Jantzien III. Lehiaketaz landa, jantzi tradizionalak buruzko hitzaldi eta tailerrak ere ematen dituzte, edo era-

kusketak antolatu, besteak beste. Tailerretan, jantzi hauek nola josi eta jantzi erakusten dute, eta hitzaldiak baserritar jantzien atzean dagoen historia azaltzeko baliatzen dituzte. Gainera, aholku eta informazio horiek guztiak Durangoko Azokan aurkeztutako «Harro-tasunez, ez harrokeriaz» liburuan jaso dituzte.

«Maite duzun zerbait zaintzea» da, Juan Luis Unzurrungagaren hitzetan, proiektu honen muina, eta pasioz egiten dute lan hau. Aitortu duen arren «pixkanaka gauzak aldatu» direla eta asko traje tradizionalak tentuz jantzeko ohitura hartzen ari direla, oraindik bide luzea dago egiteko.



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Ezkertiarrak omen

Antton Izagirre

Gipuzkoako Foru Aldundiak, egin berri duen inkestaren emaitzetan oinarrituta, herrialdeko biztanleen erdiek pasatxok beren burua ezkertiarizat dutela eman du aditzera. Uste hori bat dator hauteskunderen hautatzen ditugun alderdien emaitzekin alderatzen baldin badugu, baina kontzeptualki ezkertiar izate hori ez da objetiboki baloratu den zerbait, besterik gabe, galdekatutakoen iritzi subjektiboari eginiko argazki hutsa baino.

Badira, erabileraren poderioz oinarritutako zentzua galdu eta etiketa huts bilakatu ditugun kontzeptuak. Demokrazia kontzeptuarekin gertatzen den bezala,

ezkertiarra izatea praktika formaletara mugatzen dugu kasurik gehienetan, eta galdeketak ere formalismo horri erantzuten diolakoan nago.

Ezkerrekoa izateak, ohiko posizio politikoetatik harago, harreman estuak dituedo izan beharko lituzke eguneroko hartu-emanetan sortzen zaizkigun galderei ematen diegun erantzunekin. Zein adierazle erabiltzen ditugu gure ezkertiar izaerari neurria jartzen diogunean? Fida-garriak ote gara bertso librean erantzuten dugunean?

Ikustekoa litzateke, ezkertiar-eskuidar eskalaren baitan, zer gertatuko litzatekeen neurtuko bagenu lan banaketaz,

generoaz, ekologiaz, klima larrialdiaz, berdintasunaz, feminismoaz, soldata arrakalaz, migrazioaz, prostituzioaz, sexu askatasunaz, maitasunaz... ditugun usteak, jarrerak eta praktikak.

Esperientziak esaten dit sarri ez datozela bat, galdeketari ematen dizkiogun “politikoki zuzenak” diren erantzunak eta distantzia motzean, pribatuan, desinhibituta, eremu informaletan ditugun ikuspegiak. Gizarte aldaketarako garrantzitsuak dira egiten ditugun hautu politikoak, baina balio erantsia dutenak gertuko eremuetan hartzen ditugunak dira, eta horiek ez dira galdeketen bidez neurtzen. •

Gabonen zirimola

Miren Azkarate
Badiola

Badatoz Gabonak, batzuk pozpozik eta beste batzuk pasatzea desiratzen. Ni bigarren talde horretakoa naiz, ez ditut inoiz gustuko izan; ez, umetan ere ez! Urteak aurrera joan ahala, gainera, geroz eta gutxiago gustatzen zaizkidala esango nuke, seguruenik kontzientea-go naizelako egun horietan gertatzen denaz: kontsumismo basatiaz. Erosi, erosi, erosi... izan opariak, izan jatekoak eta edatekoak, izan gutiziak... erostegatik bada edozer, izugarria!

Hipokrisia da egun hauetan barra-barra dagoen beste zerbait. Urte osoan zehar ikusi nahi ez dituzun senide horiekin bazkaldu eta afaldu beharra, zergatik eta Gabonak direlako. Edo kalean jendearen artean dagoen poztasun faltsu hori, denak lagunak eta zoriontsu izango bagina bezala. Ez al tristea?


Beni, eta Gabonetako *Top 10*! Olen-tzero! Hiru Errege Magoak oso espainol geratzen zirenez eta Aita Noel oso yankia, pertsonaia euskaldun bat sortzen dugu eta orain, berdintasunaren izene-

an, ondoan emakume bat jarri, baina beste guztiak ordezkatzeko duen guztia berregiten dugu. Hau guztia, nola ez, kristautasuna barruraino sartuta; Beleen jaio den haurraren antzerki edo errepresentazioak nonahi, abestiak etengabe...

Pentsatzen nuen ni ama izaterako hau guztia aldatuta izango genuela, baina urruti geratu zait ametsa, gure belaunaldiak zeozer aldatu badu ere, barru-barruraino sartuak baikaude Gabonen zirimolan. •



>Ezkutatu dituzten datuak



Jon URBE | FOKU

Jose Ramon Lopez de Abetxuko preso ohiaren gaineko albiste ugari argitaratu dituzte azken egunotan, astearte eguerdian, Txema Matanzas abokatuarekin batera, Sarek antolatu zuen solasaldi batean



parte hartu zuelako EHUren Gasteizko campusean. Alderdi unionistak, Gobernu espainoleko ordezkariak eta Estatuko hedabide askok behin eta berriz nabarmendu dute ETak Miñoien buru Jesus

Velaskoren eta Gasteizko Udal-tzaingoaren arduradun Eugenio Lazaroren aurka egin zituen ekintzetan parte hartzeagatik zigortu zutela Lopez de Abetxuko. Oso gutxik esan dute Lopez de Abetxuko joan den urteko uztaillean irten zela aske, kartzelan 31 urte eman ondoren. Bere espetxealdian, gaixotasun larri bati aurre egin behar izan zion. Are gehiago, 2014an Arabako hiriburuko Udalak euskal presoak espetxetik ateratzeko eskatu zuen, EAJren, PSERen eta Bilduren botoekin, arrazoi humanitarioengatik. Eta gutxiagok gogorarazi dute Lopez de Abetxuko GAlen jomugan egon zela, 1984ko abenduaren 11n haren autoan bonba bat jarri baitzuen. Asteazkenean bete ziren 35 urte atentatu hartatik. «Hurrengoan Abetxukok ez du horrenbesteko zortetik izango», esan zuen ekintza bere gain hartu zuen gizonak. Atentatuan Juan Jose Iradi Lizarazu zauritu zen. Igor Goikolea kazetari gasteiztarrek Twitterreko hari batean jaso ditu datu guztiok.



>Feminista txiletarren performancea, Euskal Herrian...

Aurrera begira, errenkadatan eta ahots sendoz, hainbat herritako dozenaka mila emakumek errepikatu dute “El violador eres tú” abestia. Azaroaren 20an, Txileko Valparaisoko kaleetan aurkeztu zuten, sare sozialetan biral bihurtu zen eta bost egun geroago Santiagon abestu zuten, Emakumearen Aurkako



Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguneko manifestazioen baitan. Bi egunen buruan, Londres, Bogota, Buenos Aires edo Mexiko Hirian antzeztu zuten abestia, eta Euskal Herriko zenbait herritan ere antzezten hasi ziren; esate baterako, joan den azaroaren 6an Donostiako Konstituzio plazan.



>... eta Baztan-Bidasoan euskaratu egin dute

Txileko LasTesis kolektibo feministako emakume batzuek sortutako koreografia feminista munduan lau haizetara zabaldu da, baita Euskal Herriara ere. Donostiatik eta beste zenbait lekutatik pasatu ondoren, Baztan-Bidasoako feministek euskaratu egin dute “Un violador en tu camino” aldarria, eta Beran dantzatu eta abestu dute performancea.



Begiak estalita, ahotsa ozen eta pausoak sendo, Txilekoak ez ezik dagoeneko munduko hainbat tokitako plaza eta kaleak ere bete dituen performance feministaren letra euskarara ekarri dute Beran. Baztan-Bidasoako feministek elkertasuna adierazi nahi izan diete emakume txiletarrei, eta performancea egin dute Bera-ko Herriko Plazan. Ekintza bideoan grabatu dute.

>«564» abestuko du Zabalak, 246 ohe hutsak gogoan

Hertzainak taldeak “Amets prefabrikatuak” diskoan “564” abestia kaleratu eta 30 urtera, haren letra gaur egungo isla ere bada. «Euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzearen alde», Otxandioko plazan arituko da Josu Zabala abenduaren 24an eta herritarrei gerturatzeko deia egin die, «kanta hau behingoz historia-ra» pasatzeko desioarekin.

«Magikoa izan zen Bilboko Kafe Antzokian Hertzainak taldeko kideek ‘564’ kantua jo zu-



ten unea». Errepikatu egin nahi dute eta horretarako Josu Zabala Otxandion egongo da abenduaren 24an kantatzeko prest.

«Euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzearen alde bete dezagun plaza kantuz», nabarmendu dute sare sozialen bitartez. Aldarri hori egingen dute bertaratzen diren guztiek, Josu Zabala gidari dutela. «Ea azken aldia den eta kanta hau historiara pasa dezakegun», azpimarratu zuen Otxandio bertako musikariak.



>Jaiotza independentista bat eta beste 2.400

Xabier Santxotena eskultoreak Artziniegan duen tailer-museoak jaiotzen erakusketa bat hartuko du, 21. aldiz. 2.400tik gora dira guztira, mundu oso-
tik eramanak eta artista baztandarraren emazte Teresa Lafraguak bilduak. «Pixkana biltzen ditu, erosi dituenak, bidali edo ekarri dizkietenak, denetarik...», azaldu dio NAIZi Ar-



tziniegako alkate Joseba Vivancok. Jaiotzetako batzuk Udalaren sarreran ikusgai daude, tartean multzo deigarri bat, irudi guztiak, ardietatik Errege Magoetaraino, Jesus haurra, Ama Birjina eta San Jose barne, Kataluniako esteladarekin apainduta dituenak. Hori bai, ohiko *caganer*-aren irudiaren falta nabari da.



Olatz Arregi Uriarte eta Arantxa Otegi Usandizaga
Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzaileak

Alexa, «qué tiempo va a hacer hoy»?

Txatbota elkarrizketa ahalbidetzen duen softwarea da, hau da, ahoz edo idatziz solasaldi bat jarraitzeko gai den programa bat. Txatboten erabilerak gora egin du azken urteetan, eta nahiz eta hasiera batean gehienek idatzizko elkarrizketa bakarrik ahalbidetu, gaur egun ahozkoak asko zabaltzen ari dira, laguntzaile birtualen modura, batez ere.

Laguntzaile birtualek, Alexak, Sirik edota Googlerenak, adibidez, solasaldiak jarraitzeaz gain, beste gauza asko egiteko gaitasuna dute: audioa erreproduzitu, etxeko gailuak kontrolatu, erosketak egin edota posta elektronikoa kudeatu, eta, hori dena, pertsonaren ahotsari erantzunez.


Elkarrizketa-sistemek aplikazio ugari dute, goian aipatutakoez gain, eta, erabilera-esparruaren arabera, oso ezberdinak izan daitezke gainera. Webgune komertzialetan erabiltzen diren txatbotek adibidez, erosketa batean lagunduko digute produktuen informazioa emanez edota gure zalantzei erantzunez. Domeinu espezializatuetan aritzen diren sistemak, berriz, gai zehatzetan laguntzeko prestatuak daude, izan osasun arloko galderei erantzuteko, izan banketxeko eragiketarako egiteko.

Gaur egun dauden laguntzaile birtualek erdaraz hitz egiten badakite, baina, gaur-gaurkoz, ez dago euskaraz aritzen den sistema komertzial bat bera ere. Hala ere, egoera hori aldatze-ar dagoela esan dezakegu, hainbat talde horrelako sistemak garatu nahian ari direlako.

Ahozko elkarrizketa-sistemen oinarrian hainbat osagai dago, eta horiek denek euskararako prestatuta egon behar dute sistema euskalduntzeko. Bost dira urrats nagusiak: (a) erabiltzailearen ahotsa ezagutzea; (b) erabiltzaileak eskatu edo galdetu duena aztertzea eta ulertzea; (c) elkarrizketa kudeatzea, hau da, galdera erantzuteko behar den informazio guztia jaso den aztertzea eta horren arabera erantzuna prestatzea; (d) egindako sarrerari erantzuna emateko esaldiak sortzea, eta, azkenik, (e) sortutakoa ahots bihurtzea. Bost urrats horietatik, erdiko hirurak (b, c eta d) nahikoa dira testuzko elkarrizketa-sistema osatzeko.

Demagun bihar egingo duen eguraldia jakin nahi dugula, eta hori galdetzen diogula sistemari. Ikus dezagun zein urrats bete behar diren:

(a) Ahots-seinalea testu bihurtu:



–Zer eguraldi egingo du bihar Larrairen? (ahozko esaldia)

–Zer eguraldi egingo du bihar Larrairen? (testua)

(b) Galderaren xedea eta informazio gehigarria erauzi: *eguraldia, bihar eta Larraire*.

(c) Galderari erantzuteko gakoak bilatu: *elurra* eta *-1º eta 2º artean*.

(d) Erantzuteko esaldia prestatu: *Bihar Larrairen elurra egingo du, eguraldia hotza izango da eta -1 eta 2 gradu bitarteko tenperatura egongo da egun osoan zehar*. (testua)

(e) Aurreko esaldia ahots bihurtu: *Bihar Larrairen elurra egingo du, ... egun osoan zehar*. (ahoz)

Orain artean, sistema hauek erregelen bitartez funtzionatu izan dute, eta erregela horiek gai dira erabiltzaileak egindako galderaren galdegaia erauzteko, eta, behin beharrezko informazioa bilatu ondoren, erantzuna osatuko duten esaldiak sortzeko ere bai. Beraz, elkarrizketa horiek euskaraz emateko, beharrezkoa da erregela mordo bat idaztea, sistema gai izan dadin erabiltzaileak euskaraz esango diona ulertzeko, eta baita sistemak eman ditzakeen erantzun guztiak sortzeko ere.

Bestalde, esan beharra dago gaur egungo sistemak hasiak direla sare neuronalak eta ikasketa sakona erabiltzen, eta, modu horretan, hasieratik bukaerako sistema presta daiteke, hau da, aipatu ditugun modulu guztiak bereizi gabe. Metodo horiek erabilita, sistema gai izango litzateke ahotsezko galdera jaso eta ahotsez erantzuteko. Elkarrizketa-sistema eraginkorra izango bada, eta erantzun zuzenak eta egokiak emango baditu, hainbat eta hainbat (milioika) elkarrizketa gordeta izan behar ditu, horietatik ikasteko.

Ondorioz, euskarazko ahozko elkarrizketa-sistema neuronalak izateko, ezinbestekoa da ahozko elkarrizketa naturalak, hau da, pertsonen artean emandakoak, grabatuta izatea. Gaur-gaurkoz, lehenengo urratsak ematen ari diren arren, sistema orokorra, hau da, edozein galderari erantzungo liokeena egitea, ez da epe motzeko kontua. Hala ere, domeinu edo

alor zehatz batean ataza konkretu batzuk egiteko laguntzaile birtuala gartzea gertuago egon daiteke.

Ea ba laster artikularen izenburua aldatzerik dugun, eta “Alexa, zer eguraldi egingo du gaur” jar dezakegun. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE MARIA PARRA. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA. PAR-0003_5N

ELURTZA GASTEIZEN

1953. urtearen hasieran, Gabonetako oporraldi betean, euskal hiriburuetan elurte handiak izan ziren. Donostiako Kontxa hondartza ere estali zuen mantu zuriak urtarrilaren 5ean. Abenduarekin batera, elurteak ere iritsi ziren Euskal Herrira, eta, zenbait kasutan, Gasteizen esaterako, gogoratzen diren handienetako bat bota zuen; garaiko hedabideen arabera, metro erdi baino gehiagoko altuerakoa. Irudian, Andre Maria Zuriaren plaza ageri da, elurrak guztiz estalita eta haren fisionomia gaur egungoaren desberdina. Herriarrek zabaldu zituzten bideak jendea ibiltzeko, batzuetan udal brigaden laguntzarekin. Jose Maria Parra gasteiztarrak egin zuen argazkia. Dato kalean estudio bat zuen eta haren jarduna gehienbat gizarte erreportajeak, errebelatua eta argazki materialaren salmenta zen.



#ExpolioGARA-ri

aurre egiteko

gabonetako denda

Abenduaren 13tik urtarrilaren 5era Donostiako Zurriola 6ean egunero zabalik
Ordutegia: 11:00-14:00, 16:30-20:30

Oparirik berezienak topatuko dituzu....

Eguzkiloreak, liburuak, artelanak, arropa, baxerak,
EH-ko kopak, ...

...Eta etxea apaintzeko egurrezko
eskulan ikusgarriak!



ZATOZ!

